



Elorriko gazteak eta euskara:

**Gaitasunak, hizkuntza ohiturak eta
motibazioak**

HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa

Sakontze egitasmoa

Egilea: Amaia Ugalde Begoña
Tutorea: Patxi Juaristi Larrinaga

0. AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4.or.
2. Testuinguru soziolinguistikoa	5.or.
2.1. Biztanleria eta euskararen ezagutza	5.or.
2.2. Euskararen erabilera Elorrion	7.or.
2.3. Etxean transmititutako hizkuntza.....	8.or.
2.4. Ikastetxeetako hizkuntza eredu.....	9.or.
2.5. Euskararen normalizazioaren aldeko lana Elorrion.....	10.or.
2.5.1. Herri mugimenduak.....	10.or.
2.5.2. Erakunde publikoak	11.or.
3. Marko teorikoa	14.or.
4.1. Belaunaldi arteko etena.....	14.or.
4.2. Gazteen erabileran eragiten duten faktoreak.....	14.or.
4.3. Harreman-sareak.....	15.or.
4.4. Gazteak, hiltun oso izateko hautagaiak.....	16.or.
4. Metodologia.....	19.or.
1. Fasea: Ikerketa kuantitatiboa	19.or.
2. Fasea: Ikerketa kualitatiboa.....	20.or.
5. Gazteen erantzunak.....	22.or.
5.1. Ikerketa kuantitatiboa. Inkesta.....	22.or.
5.1.1. Datu estatistikoak.....	22.or.
a) Hizkuntza gaitasuna.....	22.or.
b) Norbere identitatea eta etxeko hizkuntza	23.or.
c) Lagunartea.....	24.or.
d) Etxea eta lagunartea.....	26.or.
e) Elorrio eta euskara.....	27.or.
f) Euskararen egoera orokorra.....	29.or.
5.1.2. Galdera libreetan irtendako ondorioak.....	32.or.
5.2. Ikerketa kualitatiboa. Eztabaida taldea.....	36.or.
a) Egoeraren hautematea	36.or.
b) Elkarre bakoitzaren errealitatea.....	37.or.
c) Eredu izatearen kontzientzia	39.or.
d) Ohiturak.....	40.or.
e) Herriko hizkuntza aukerak.....	41.or.
f) Hizkuntza gaitasunak eta kaleko hizkera.....	42.or.
g) Telebistaren eragina eta euskarazko kulturgintza	43.or.
h) Gaztelaniaren moda eta adina.....	44.or.

i) Etxearen eta ikastetxearen eragina.....	45.or.
j) Euskaldun berriekin berbetan.....	46.or.
k) Elorrio Euskal Herriko testuinguruan.....	46.or.
l) Herrian gaia jorratzeko premiari buruz.....	47.or.
6. Ondorioak.....	49.or.
6.1. Euskaraz hitz egiteko gazteen gaitasuna.....	49.or.
6.2. Eskolarako eta aktak idazteko bai, eztabaidarako ordea... ..	49.or.
6.3. "Ohitura daukagu eta..." ..	50.or.
6.4. Eredu eta erreferentzien beharra.....	50.or.
6.5. Herriko egoeraren hautematea.....	52.or.
6.6. Euskararen arriskuak. Gazteen pertzepzioa.....	52.or.
6.7. Kontzientzia hartzearen garrantziaz. Hizkuntza Ideologia.....	52.or.
6.8. Gune baten premia.....	53.or.
7. Bibliografia.....	54.or.
8. Eranskinak.....	54.or.
8.1. DBH 4ko ikasleek bete duten inkesta.....	54.or.
8.2. Eztabaida taldeko gidoia.....	55.or.

1. SARRERA

-Baina zuena ez al zen herri euskalduna?

-Fama bai!

Hainbat elorriarri gertatuko zitzaaien hori; kanpoko norbait herrira bisitan etorri, eta harrituta geratzea. Plaza alboko aparkalekuan kotxea utzi, alde zaharretik bueltatxo bat eman, taberna baten pote bat hartu, eta euskara askorik entzun ez. Askori entzun diet antzerako pasadizoa, eta niri ere gertatu zait. Kasu horietan, erdi lotsatuta eta pintxo gozoa ahoan, horrenbeste ez dela egiten, jakin askok dakiela, baina ohitura kontuak, badakizu... Horrelako kontuak erantzuten dituzu.

Udaberri honetan egin dute berriro euskararen kale erabilera neurketa, eta ikusiko da erdi ezkutuan egon diren belarri horiek zer neurtu duten. Azken datuak 2008koak dauzkagu. Soziolinguistika Klusterrak egindako neurketa hartan, elorriarren % 29k kalean euskaraz egiten dutela ondorioztatu zen. Adin-taldeka ere eman zituzten emaitzak, eta gazteen datua da harrigarriena: Hamar gaztetik ia zortzi dira euskaraz berba egiteko gai, baina kalean % 22k baino ez zuen egin 2008ko neurketa hartan. Beste modu batera esanda, gazteen kaleko elkarrizketen % 78 gaztelaniaz ziren. Kalean sumatzen zen giro erdaldunaren argazkia ikusi ahal izan zen datu horiek kaleratzerakoan.

Gazteek lagunartean eta gertuko harremanetan dituzten hizkuntza ohiturak hobeto ulertzeko ahalegina da lan hau. Euskaraz berba egiterakoan dituzten oztopoak, hizkuntzarekiko dituzten sentimenduak eta egunerokotasuneko praktikan gertatzen dena hobeto ulertzeko ahalegina.

2. TESTUINGURU SOZIOLOGISTIKOA


2.1. Biztanleria eta euskararen ezagutza

Elorrio Durangaldeko herri handienetako bat da; 7.262 biztanle ditu 2011ko erroldaren arabera, eta % 90a gutxi gorabehera herrigunean bizi da. Herritarren beste % 10 herrigunea inguratzen duten 15 auzoetan bizi da.

Azken urteotan euskarak herrian izan duen joera Euskal Herrian orokorrean izan duenaren antzerakoa da. Ezagutza asko hazi da herrian. Hogeita bost urtetan, 12 puntu: 1981ean herritarren %46ak zuen euskaraz berba egiteko gaitasuna, eta 2006ko Mapa Soziolinguistikoa azaleratu zuenez, euskararen ezagutza %58,6koa zen urte hartan.




Elorrioko hizkuntza gaitasunak (2006ko mapa soziolinguistikoa)




Erdaldun elebakarren kopuruak nabarmen egin du behera eta euskaldun eta ia euskaldunak biztanleen ia hiru laurden dira.

Ezagutzaren bilakaera Elorrion (2006)



Datuok adin tarteka aztertzea interesgarria da. Umeen eta gazteen artean ezagutzak igoera handia izan du azken 25 urteetan, eta hori, hein handi baten ikastetxeetan egindako lanaren ondorioa da.

Elorriko euskaldun proportzioaren bilakaera adin taldeka (86-01)




Gazteei dagokienez, 1986an %41,38k zekien euskaraz, eta 2001eko datuek diotenez, gazteen % 78,26 zen euskalduna. Gazte euskaldunen kopurua ia bikoiztu egin dela esan genezake, beraz.

Umeen euskalduntze tasa ere oso altua da, ia hamar umetik bederatzik dauka euskaraz egiteko gaitasuna. Horrekin aurreresuposatu daiteke bilakaera honek antzera jarraitzen badu, euskaraz berba egiteko gai den gazte kopurua gorantza joango dela datozen urteetan.

2.2. Euskararen erabilera Elorrion


Ezagutza eta erabileraren artean nahiko tarte handia dago Elorrion. 2008an Soziolinguistika Klusterrak kale erabileraren neurketa egin zuen. Datu horien arabera, Elorriko biztanleen % 58,6 euskaraz berba egiteko gai bada ere, % 28,6 erabiltzen du euskara kalean. Urteetako bilakaerari begiratzen badiogu, gainera, erabilera bajatu egin da azken urteotan. Egin diren kale erabilera neurketen emaitzak ikusi daitezke honako grafiko honetan:

Elorriko erabileraren bilakaera



Adin tarteka datuok ikusiz gero, ezagutza eta erabileraren arteko distantzia gazteen portzentajeetan da handiena: Hamarretik ia zortzi gaztek (%78,6k) euskara erabiltzeko gaitasuna dauka, baina kalean % 22,2k egiten du euskaraz.

Elorriko erabileraren bilakaera (93-08)




urteen joera ikusten badugu, argi dago azken urteetan gazteen hizkuntza gaztelania izan dela Elorrion. Horrek eragina dauka kale hizkera transmititzeko orduan. Tradizioz gazteek euskaraz berba egiteko ohitura gehiago izan balute, euskarazko adierazpideak sortuko lituzkete, eta Elorrioko gazte hizkera sortuko litzateke euren jardunaren ondorioz.

Belaunaldi arteko etena egon da Elorrion, eta ez da gazteen kale hizkerarik sortu azken urteotan. Gazteek sarritan gaztelaniara jotzen dute gaur egun, testuinguru informaletan adierazkortasuna irabazteko. Kale hizkera berreskuratzeko erabilera indartu beharko da, eta erabileraren erabileraz, gazteek euren baliabide propioak sortuko dituzte, eguneroko bizitzarako, eta hurrengo belaunaldiei transmititzeko.


2013ko maiatzean beste kale neurketa bat egin du Soziolinguistika Klusterrak, eta ikerketa horren emaitzak udazkenean emango dituzte jakitera.

2.3. Etxean transmititutako hizkuntza

Elorriarren ama hizkuntza (Eustat, 2006)



Etxean erabiltzen den hizkuntza (Eustat, 2006)



Mapa soziolinguistikoko datuen arabera, Elorrioko etxeen erdietan gaztelaniaz berba egiten dute. Ama hizkuntza euskara duten pertsonak erdia baino zerbait gehixeago dira. Ñabardura batzuk ageri dira ama hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren artean. Izan ere, etxean denek euskaraz dakitenean nagusiki euskaraz berba egiten da, baina nahikoa da etxeko batek ez jakitea, familian nagusiki erdara erabiltzeko. Kasu honetan 'biak' erantzunean ezin denez jakin zein hizkuntza den nagusi, nabarmendu beharko da, etxeen heren baten dela euskara bertako hizkuntza nagusia.

Etxean erabiltzen den hizkuntzak eragina edukiko du gazteen gaitasunetan eta hizkuntzenganako emozioetan.

2.4. Ikastetxeetako hizkuntza eredua

Euskal Herriko hainbat herritan legez, gazteak euskalduntzeko ikastetxeek egin duten lana berebizikoa izan da Elorrion. Momentu honetan, herriko ikastetxe guztiek eskaintzen dute D eredua, eta lehenago egondako A eta B ereduak desagertuta daude. Zehazki azken B ereduko ikasleek 2005ean amaitu zituzten DBHko ikasketak.

Elorrion hiru ikastetxe eredu daudela esan genezake:

- Batetik, hezkuntza publikoa dago, eta bertan Haurreskola, Herri Eskola (LHko eskola) eta Elorrioko Institutua daude (DBHko eskola)
- Bestetik, duela gutxira arte Asuntzionisten ordenak eroan duen Lourdesko Ama ikastetxea dago. Aurten kooperatiba eratu dute bertako irakasle eta gurasoek, eta LH eta DBHko eskolak ematen dituzte bertan. Lourdesko Ama ikastetxeagaz lotuta, Maria Bitarteko ikastetxea dago, beste eraikin baten, eta Haur Hezkuntza ematen dute bertan;
- Azkenik, Txintxirri ikastolan Haurtzaindegitik DBH 4rako ikasleek ikasten dute.

Adar publikoan, **Haurreskola** beti izan da euskara hutsezkoa. **Herri Eskolan** A eredua 1987an kendu zuten, eta B eredua, berriz, 1993an. **Elorrioko Institutuan**, berriz, 2004-2005 urtetik talde eta maila guztiak dira D eredukoak.

Lourdesko Ama Ikastetxean D eredua 1996an sartu zen, eta B eredua 2005ean desagertu zen, DBH 4ko ikasleak eskolatik irten zirenean. **Maria Bitarteko ikastetxean**, sorrerako hizkuntza gaztelania izan zen. 1984an elebiduna izatera pasatu zen, eta 1990 urteaz geroztik euskara da ikastetxeko hizkuntza.

Txintxirri ikastolan inoiz ez da A eta B eredurik egon, beti izan da D eredukoa.

Datuok ikusita, Elorrioko gazte askok herrian hezkuntza prozesu osoa euskara hutsean egin dutela ikus genezake. Zehatzago, Elorrioko ikastetxeren baten ikasi, eta gaur egun 21 urte dituzten gazte guztiek D ereduan ikasi dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoa. Horrek ezagutza hein handi baten ziurtatu egiten du. I

Ikastetxeen jarduna ikusita, erraz ulertu dezakegu gazte elorriarren % 78,6k euskaraz berba egiteko gaitasuna izatea. Gaitasun hori egunerokotasunean praktikara eroterakoan, ordea, datuak asko bajatzen dira. Horregatik erabaki dut Elorrioko gazteek euskaragaz duten harremana aztertzea lan honetan. Motibazioak, emozioak, euskararekiko sentimenduak eta esperientziak zelakoak diren ulertzeko.

2.5. Euskararen normalizazioaren aldeko lana Elorrion

2.5.1. Herri mugimenduak

Orain momentuan ez dago euskara elkarterik Elorrion. Lehenago, **Barriketan** izeneko elkarteak zegoen. 1995 urtean sortu zen eta hamahiru urteko ibilbidean kultur ekintza ugari antolatu zituen: hitzaldiak, ikastaroak... Kale erabileraren lehen neurketak ere euskara elkarteak egin zituen, eta horrez gain, herriko euskara batzeko hainbat elkarrizketa egin zituen herriko jende nagusiarekin. Etorkinentzako lehen harrera ikastaroak ere elkarteak antolatu zituen. Barne buletina zeukan eta 130 bazkide inguru izatera heldu zen.

Barriketan sortu zenean, Euskara kontseilua zegoen bakarrik, eta bertan zebilen jendeak zer edo zer gehiago egiteko premia ikusi zuen. Jesus Guridi Barriketaneko sortzaile eta kide izan zenak adierazi duenez, Arrasate Euskaldun Dezagun eta Berbaro lako euskara elkarteekin hitz egin eta Barriketan gorpuzten joan zen. Herriko esparru guztietako jendea inplikatzeko ahalegindu ziren, elkarteetara, enpresetara... eragile askotara jo zuten.

Hasieran kontzientzia arloan egin zuten lan batez ere, eta apurka-apurka handitzen joan zen elkarteak. Udalaren plan estrategikoa eta ordenantzak sortu zituztenean, elorriarrak eurak dinamizatzailerik izateko premia ikusi zen eta Barriketanek eta AEK-k hartu zuten lan hori. Udalak hainbat ekimen Barriketanen esku utzi zituen, tartean lehen plan estrategikoa martxan ipintzea. Hainbat kontu kudeatzen hasi zen eta. Dinamika horretan hasita, momentu baten hiru pertsona liberatzeraino heldu zen elkarteak. Guridik azaldu duenez, kaleko jarduna moteldu egin zen azkenean:

- Ez zuen euskara sail lana hartu, baina bai, euskara sailari zegozkion hainbat atalen ardura hartu zuen. Burokrazia lanak ziren asko. Hor zerbitzua ematen hasi ginen, eta hausnarketa batera heldu ginen: 'zerbitzu eta kontzientzia-eragile, zer gara?' Ez genuen jakin arlo biak sortzen.

Herriko eragileak apurka-apurka aspertu egin zirela uste du Jesus Guridik: "Atzetik ibili behar izaten ginen; beharrak herritik sortu beharrean guk sortzen genituen". Prozesua *standby* egoeran utzi zuten 2008an, eta elkarteak iaz desegin zuten.

Gazteei dagokionez, euren arteko erabilera "obsesioa" izan zen Barriketantzat. Kirol elkarteetan, futboleko gaztelania hutsez zeuden kartelak euskaratzea lortu zuten Barriketanen laguntzagaz, baina bertako hizkuntza nagusiak espainola izaten jarraitu zuen. Errugbian, oso erantzun ona izan zutela gogoratzen du Jesus Guridik.

Guridiren berbetan, Gaztetxeko erabileran eragitea erronka handia izan zen Barriketanentzat. Garai batean ikastaroak eman zitzaizkien eta batzarretara deitzen zituzten, baina erantzuna ez zen espero zuten bezain ona izan.

Euskal Herrian Euskarazeko taldea ere egon izan da Elorrion, tarteka jaio eta ondoren desagertu bada ere.

Intxorta aisialdi elkartea 24 urtetan dabil ume eta gaztetxoentzako aisialdi ekintzak antolatzen. Urtean zeharreko aisialdiaz gainera, udan kanpamentuak antolatzen dituzte. Elkarreetako oinarri eta baloreetako bat euskararen erabilera bultzatzea da. 6 eta 16 urte bitarteko ume eta gaztetxoekin egiten dute lan boluntarioa, eta eskolaz kanpoko jardueretan eta aisialdiarekin lotuta, euskaraz bizitzeko apustua egiten dute.

Helduen euskalduntzeari lotuta, AEKren **Abizari euskaltegia** dago Elorrion. Hogeita hamar urtetik gora daramatza AEK-k herrian lanean. Gaur egun hiru talde dabilta bertan ikasten, denetara 22 lagun, eta beste bost autoikaskuntzan dabilta. Euskara praktikatzeko Berbalagun egitasmoa ere badago martxan, eta Bizkaian sortu zen lehenengotarikoa da Elorriokoa. Ikasturte honetan 30 lagun dabilta Berbalagunen, bost taldetan. Tartean hainbat guraso eta dendari daude. Etorkinei zuzendutako AISA ikastaroan ere taldea sortu da aurten, Caritasen ekimenari esker, eta zazpi lagun dabilta euskarazko klaseak hartzen.

Herrian **bertso eskola** egon izan da urteetan, baina taldea duela bost urte desagertu zen. Orain momentuan, ikastetxeetan ematen da eskola orduetan. 6.mailako ikasleentzako antolatu dituzte hiru zentroetan bertsolaritza eskolak, eta astean ordu betekoak izan ohi dira. Gainera, Txintxirri ikastolako eta Herri eskolako ikasleek, Bertso Zirkuitua delakoan parte hartzen dute, Mallabia, Zaldibar eta Berrizko ikastetxeekin, eta zentroz zentro joaten dira prestatutako bertso, koplak eta ariketak egitera. Ikastetxeko jardunaren ostean, zoritxarrez, ez daukate herrian bertsolaritza lantzen jarraitzeko gunerik.

Durangalde mailan bertsolaritza eta bertsozaletasuna bultzatzeko ekimen bat jaio berri da, Durangaldeko Bertso Eskolen elkarte, izenekoa. Eskualdeko bertso eskolak bultzatzea da bere helburua, eta eskolarik ez dagoen lekuetan, tartean Elorrion, guneak sortzeko ahalegina egitea.

2.5.2. Erakunde publikoak

Momentu honetan, euskararen normalizaziorako tresna nagusia udalak sortutako **Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia** da. Elhuyar aholkularitzako langileen laguntzarekin eta herritarren parte hartzearekin berriztu dute plana aurten, eta 2013-2017 epealdian jorratu beharreko lan-ildoak finkatu dituzte.

Plana amaitu berritan, udalak **Euskararen Aholku Batzordea** eratu du herriko hainbat eragilerekin. Ekintza Planari begiratu bat ematen hasi da eta herrian dinamika berriak egiteko aukerak aztertu gura ditu. Udalak, bestalde, **Euskara Kontseilua** izeneko organoa eduki du hainbat urtetan. 1997an sortu zen, eta bertan euskararen normalizazioan lan egin gura zuten eragile, elkarte eta norbanakoak batzen ziren, euskara arloan koordinazio lana egiteko. Hiru ildo nagusi izan zituen: Ikastetxeak, kultura, eta kalekoa. 2008tik gaur arte ikastetxeen koordinazio eta elkarlana mantendu da. Kontseilua berriro martxan jartzea aztertzen dabilta.

Aurtengo Ekintza Planean zehaztu diren helburu estrategikoak hiru dira: Euskararen jabekuntza (familia transmisioan, euskalduntze prozesuan eta irakaskuntzan), euskararen erabilera (lan munduan, aisian eta kirolean) eta euskararen elikadura (kulturgintza, komunikabideak eta teknologia berrien bidez). Ekintza planerako Euskara sailak 46.000 euroko aurrekontua dauka aurtén.

Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenetako bat, **‘Geurien hitzarmena’** da. Herriko hainbat esparrutako eragileekin hitzarmenak egin eta euskara bultzatzeko oinarri batzuk finkatzea da hitzarmenaren helburu nagusia. Udaleko Euskararen Kontseiluaren proposamena izan zen. Lehenengo elkarteekin sinatu zen hitzarmena, gero dendariekin, ostalariekin eta zerbitzuekin. Lan munduan eta enpresetan sartzen ere saiatu dira, baina oraindik ez dute emaitzarik lortu. Kudeaketaz, hasieran, Barriketan euskara elkarte arduratu zen –desagertu egin da Barriketan. Gero, Elhuyar aholkularitzak jardun zuen, eta gaur egun udaleko Euskara zerbitzuaren lana da.

‘Geurien’ ekimenetik izen bereko aldizkaria sortu zen, merkatariek eurek proposatuta. Bertan, euskara arloan herrian egiten diren ekintzak eta elkarrizketak argitaratzen ditu Euskara sailak. Urtean ale bi publikatzen dira eta merkatariei, elkartei eta enpresei banatzen zaie aldizkaria. Orain arte Elhuyarren laguntzarekin egin ditu koordinazio lanak euskara teknikariak. Orain bera bakarrik moldatzen da. Irudian dagoena aldizkariaren azken alea da, martxoan kaleratutakoa.



10. zenbakia

EMAN EUSKARA ELKARRI,...

EMAN EUSKARA BEZEROARI!

AURKIBIDEA:

Lagun berriak Geurien hitzarmenean	2-3. orr.
Geurienskoak ere euskara elkarrizkari emanaz	4. orr.
Telefono bidezko lehen berba, euskara?	5. orr.
Doako itzulpen zerbitzua eskura	5. orr.
Euskararen sustapenerako plana onartu du Udalak	6-7. orr.
Hiakuntza-paisala euskaraz jartzeko diru-laguntzak	8. orr.
Etorkinak ere euskara ikasten	8. orr.
Abian da ZARBA, euskararen Durangaldeko sarea	8. orr.



Euskara sailak bultzatu dituen ekimenen artean, duela urte bi egindako Word Kafea aipatu dezakegu. Udalak eta Elhuyarrek eratuta, herriko taberna eta komertzioetan euskararen erabilera zelan aztertu berba egiteko batu ziren hainbat herritar. Parte hartzaileen ustez, gaur egun gaztelania da nagusi Elorrioko merkataritzan eta ostalaritzan, eta besteak beste, lehen hitza euskaraz egitearen garrantziaz jardun zuten.

Durangaldeko **Amankomunazgoak** ere badauka bere Ekintza Plana, eta eskualdeko udalekin koordinazioan hainbat ekimen egiten dituzte. Tartean dira, gaztetxo eta gazteekin zuzenean lotutako tailerrak. Esaterako, aurtengo, herriko bi ikastetxeetan Topaguneak eratutako 'Zergatik ez?' tailerra jaso dute Durangoko Berbaro elkartearen eskutik. Tailerra DBH 4ko ikasleek jaso dute. Besteak beste, euskararen erabilerari buruz, hizkuntza ohiturei buruz eta hizkuntzen aniztasunari buruz hausnartu dute tailerrotan.

4. MARKO TEORIKOA

4.1. Belaunaldi arteko etena

Euskal Herri mailako azken ikerketa soziolinguistikoen berri eman zutenean, erabileran egondako gorakadaren ostean geldiuena igartzen zela, eta euskarak “goia jo” duela interpretatu zuten batzuek. Aurrerapenak egon dira bai. Esate baterako, Euskal Autonomia Erkidegoan 16 eta 24 urtekoen arteko euskararen erabilera bikoiztu egin zen 1991tik 2011ra; % 12.4tik % 26.8ra.

Norbere hizkuntza gaitasuna eta inguruneko aukerak egokiak badira, euskaraz bizitzeko aukerak handiagoak izango dira. Ezagutzan aurrerapausoak eman dira, baina Euskal Herriko hainbat herritan antzera, belaunaldien eten linguistikoa nahiko sakona da Elorrion. 50 urtetik gora dauzkaten elorriar askok euskara hitz egiteari utzi zioten, eta euretako askok galdu egin dute hizkuntza.

Elorrioko euskaldunen hizkuntz komunitatean gaztelaniaz hitz egiteko ohitura guztiz zabalduta dago, eta hiztunek garatu ahalko zituzten hainbat baliabide eta hizkuntza tresna galdu dira eten horrekin. Gazte eta umeei zer edo zelan buelta eman beharko diote egoerari, herrian euskararen egoera normalduko bada.

4.2. Gazteen erabileran eragiten duten faktoreak

Herriko hizkuntza egoeraren ispilu kalea hartu dugu lan honetan. Gazteek gertukoenekin eta lagun artean batez ere dituzten hizkuntza ohiturak aztertzea da helburu nagusietako bat. Azken finean, etxeko eta ikastetxe barruko erabilerarekin konparatuz, aisialdian eta lagunartean joera handiagoa dute gaztelaniara jotzeko.

Lagunarteko esparru horretan gertatzen dena ulertzeko, hizkuntzarekin daukaten harreman indibiduala hartu beharko da kontutan, eta baita ere maila kolektiboan, koadrilan zein elkarte edo kirol taldean, dauzkaten hizkuntza ohitura eta idatzi bako arauak.

Soziolinguistika Klusterraren arabera, honakoak dira gazteen euskara erabiltzean eragiten duten faktoreak:

- Adierazkortasuna lortzeko baliabiderik eza
- Gazteen intereseko gaietan erreferentzia gehienak erdaraz egotea. Gaztelaniak komunikabideetan duen indarra eta baliabideak
- Euskararen lokuzioak eta esaera zaharrak ez ezagutzea

Badirudi faktore horiei aurre egiteko ahaleginetan hainbat eragilek egin beharko dutela lan elkarlanean. Maila mikrotik makrora, koadrila mailan hasi eta nazio mailara arte landu beharreko kontuak dira.

Kike Amonarriz hizkuntzalariak ere behin baino gehiagotan nabarmendu du gazteei kale hizkera falta zaiela hainbat herritan. Haserretzeko edo adarra jotzeko baliabide gutxi dutela azpimarratu du hainbat hitzalditan. Elorrion ere horrelako zerbait gertatzen dabilela iritzita, euskarak gazteentzako dituen baliabideen gainean galdetu zaie ikerketan parte hartu duten gazteei.

4.3. Harreman-sareak

Egoeraren argazkia ateratzeko, erabilera arloak kontuan hartzea beharrezkoa da bide horretan. Izan ere egunerokotasunean arlo oso desberdinetan komunikatu behari zuten dugu, eta normalizatzeko bidean dagoen hizkuntza batek apurka-apurka esparru horiek guztiak bere egin behar ditu.

Joshua A. Fishman hizkuntzalari estatubatuarrak hizkuntzen biziberritzean landu beharreko hainbat harreman-sare aipatzen ditu:

- Familia eta etxea
- Hurbileko auzoa (Herria)
- Lan-mundua
- Kirola, jokia eta aisialdia
- Eskola-mundua
- Eliza
- Administrazio publikoa

Orain arte euskarak ondoen irabazi duen alorra eskolarena dela esan dezakegu. Elorrion momentu honetan ikasten dabiltzan ume eta gaztetxoak, denak daude D ereduari matrikulatuta. Eskola arloan hizkuntza babestuta badago ere, beste arlo batzuetan euskararen biziberritzea motelagoa da.

Esparru formaletan irabazi bada ere, informaletan galdu egin da, eta familian eta kalean gaztelania da oraindik nagusi gazte askoren egunerokotasunean.

Aisialdian eta kirolean hainbat ahalegin egiten dabiltza urteotan euskararen erabilera ziurtatzeko –ludoteka, eskola kirola, Intxorta aisialdi elkarte-, baina oraindik guztiz irabazi bako espazioak dira.


Fishmanek hizkuntzaren transmisioan zelako etena egon den neurtzeko GIDS edo BAEN eskala sortu zuen. Tartean hainbat maila daude, zortzigarren maila larrienean hasi eta eten txikiena marrazten duen lehengo mailara arte. Gazteen arloan, Euskal Herrian eta Elorrion bertan ere bai, 6.mailan kokatu dezakegu daukagun etendura maila.

Maila horretan dauden hizkuntzek kale-bizitza hurbilean presentzia oso kolokan daukate. Gure kasuan, geroago eta sarriago erdaraz egiten dute, euskaraz jakin arren. Hurreko harremanetan dago hutsunea eta etena. Horren aurrean honakoak proposatzen ditu Fishmanek:

- Belaunaldi gaztea euskarara pasatu behar da, edo bertan badago, mantendu. Bere ustez eginkizun hori ezin da eskolaren esku utzi
- Hizkuntzen arnaguneak, euskara eroso eta natural bizi den guneak, ugariagotu eta aktibatu behar dira
- Lehentasunezko jomuga izan behar da euskaraz erraz egingo duten euskaldunak egotea
- Teknologia berriek harreman-sare euskaldunak sortzeko laguntza eman behar dute
- Aisialdia, komunikabideak, kultura... Euskaraz sortu behar dira, komunitate sentimendua indartzeko
- Familiei eta gertuko elkarbizitzari garrantzia ematea ere gomendatzen du Fishmanek. Herri bizitza trinkotzea, azken finean.

4.4. Gazteak, hiltun oso izateko hautagaiak


Jose Maria Sanchez Carrión “Txepetx”ek hizkuntzen ikasketen teoriaren arabera, hizkuntza bat oinarritzko hiru faktore hauengatik ikasten da: motibazioa, ezagutza eta erabilera. Hiru faktoreak elkartuta daude eta zirkuitu bat osatzen dute:



Erabilera, motibazioa eta ezagutza berezkoak edo induzituak izan daitezke. Horren arabera ikasketa mota bi ditugu: Primarioa edo naturala (A ikurraz izendatzen da) eta ikasketa sekundario edo kulturala (B ikurraz izendatua)..Lehenengo ikasketan ikasketa haurtzarokoa da, eta bigarrena, nerabezarotik gorakoa da. Kasu horretan, motibazioa, ezagutza eta erabilera zerbaitek bultzatutakoak dira.

Ikasketen teoria horren arabera, zirkuitua bi norabidetan egin daiteke, ikasketa primarioa bada, erabilera da lehen pausua, gero ezagutza, eta gero motibazioa. Ikasketa sekundarioa bada, lehenengo pausoa hizkuntza ikasteko motibazioa izangoda, gero ezagutza, eta azkenik erabilera.

Geroago ikusiko dugun moduan, elorriar gazteen lehen hizkuntza oso dibertsifikatua da:



DBH 4ko ikasleek eman dituzten erantzunen arabera, euren etxeetatik % 36tan egiten da euskaraz gaztelaraz baino gehiago. Aldiz, gazte horien etheen % 47tan gaztelania da nagusi.

Horrek esan gura du gaztetxo askok ez dutela hizkuntzaren ikasketa naturala bete-betean jaso. Euskarazko euren erreferentzia ikastetxea da batez ere, eta kaletik eta lagunartetik jaso beharko dute ikasketa mota naturala. Horretarako emozioetan eragin beharko da, eta ikasketa prozesuko motibazioaren zatiak zeresan handia izango du gaztetxoen hizkuntza ikasketa prozesuan.

Txepetxek bere teorian estu lotzen ditu hizkuntza, hartzuna eta gizartea. Bere arabera, hizkuntzen ikasketa zirkuitua osorik betetzen duenak, bizitzako arlo guztietan euskara erabiltzeko gai izango da, eta hizkuntzaren alde kulturala ezagutuko du: **hiztun osoa** izango da.

Txepetxeren arabera, hiztun oso horiek komunitatearen erdigune eta erreferente izan behar dira euskararen biziberritzea arlo guztietara zabaltzeko. Elorrion, eta Euskal Herri osoan, hiztun oso izateko aukera gehien dituztenak gazteak eta umeak dira. Hiztun oso izateko baldintza bi beharko dituzte: Kaleko eta herriko euskara jasotzea, eta ikastetxearen bidez, gizartearen bidez, kulturagintzaren bidez, euskaraz eta euskal munduaz jantzea.

Aukerak beraz, gazteen esku daude. Hitzun horiek euren bizitzako arlo guztietan euskaraz bizitzeko gai izan beharko dira. Ikerketan ikusi denez, batzuk gaitasun hori ez dute hain ona dela uste, eta hutsuneak daude testuinguru informaletan euskara erabiltzeko. Txepetxek berak esaten duenez, pausu horiek emateko ezin gara boterearen zain egon. Gure komunitatearen trinkotasunaren ondorioz etorriko da.

Elorrion egondako belaunaldi arteko etenari buelta eman gura bazaio, gazte eta umeek egin beharko dute hori. Eurak izango dira etorkizunean hizkuntza komunitatearen erdigune sinbolikoa. Eragileak izango dira, herrigintza egingo dutenak, herriari bizia emango diotenak, eta gura badute, euskarari berari ere bizia emango diotenak. Horretarako, Txepetxen arabera, normalizazio horretan eragile aktibo izateko hitzun oso horiek kontzientziatuak izan beharko dira.

Gazteei egindako galderetan eta eurekin edukitako eztabaida saioan ezagutzaz, motibazioaz eta erabileraz berba egin da, zirkuitu horretan egon daitezkeen oztopo eta mugak zeintzuk diren ulertu guran. Hizkuntzaren funtzio gehienak ukitu gura izan dira, batez ere gertukoenetan, honako funtzioetan, arreta ipinita:

- Funtzio indibiduala eta norbere identitatea
- Etxeko hizkuntza
- Lagunartekoa
- Ikastetxekoa
- Herriko hizkuntza, Elorrioko egoera
- Kultura kontsumoa
- Nazio hizkuntza kontzientzia

3. METODOLOGIA

Zeregina	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
Datu bilketa						
1. Fasea: Ikerketa kuantitatiborako ikastetxeekin kontaktua						
Ikasleengana joan inkestak pasatzera						
Inkosten erantzunak prozesatu						
2. Fasearen hasiera: Eztabaida taldea prestatu						
Eztabaida eguna						
Eztabaida saioa transkribitu eta prozesatu						
Lanaren erredakzioa						

Herriko egoera soziolinguistikoaren informazioa jasotzea izan da lanaren lehenengo pausua. Gazteen arloan egindako beste lan batzuk ere aurkitu ditut, ikerketaren nondik norako pausuak erabakitzen hasteko. Ikerketa bera bi fasetan egitea erabaki dut: ikerketa kuantitatiboa eta kualitatiboa. Biak bata bestearen osagarriak direla iruditzen zait kasu honetan.

Gazteek euskararekin dituzten diskurtsoak eta bizipenak ezagutzeko bidea zabaldu dute bi ikerketek. Metodo kuantitatiboei jarraituta, herrian Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4.mailan dauden ikasleei inkesta bat pasatzea izan da lehen pausua. Sakonagoko gerturatze bat egiteko, metodoko kualitatiboetara jo eta eztabaida talde batek ere bere fruituak eman ditu. Bigarren fase horretan gazteak apur bat nagusiagoak izan dira. Herriko elkarte eta taldeetan dabiltzan zazpi gaztek osotu dute taldea.

1.fasea: Ikerketa kuantitatiboa

Ikastetxeetara jo eta DBH 4ko ikasleei galdetegi bat pasatu zaie euskararen ezagutza, erabilera eta motibazioetara hurbilpen bat egiteko. Guztira 60 ikasleko unibertsoa da, ikastetxeetan horrela banatuta:

- Elorrioko institutua: 39 ikasle, hiru gelatan banatuta
- Lourdesko Ama Ikastetxea: 11 ikasle
- Txintxirri ikastola: 10 ikasle

Gaitasunari eta hizkuntza ohiturei buruzko galdera batzuk egin eta gero, galdera gehienak Likert eskalaren bidez planteatu dira. Esaldi batzuk izan dituzte, eta euren adostasun maila zelakoa den erantzun behar izan dute ikasleek. Hona hemen adibide bat:

(*) Inkesta orria eranskinen atalean dago atxikita

Euskara Elorrion	1 Gutiz ados	2 Nahiko ados	3 Hala hola	4 Ez oso ados	5 Batere ados
1) Dendari eta tabernariekin euskaraz berba egitea zaila da					

Esaldi horiek funtzioka egon dira banatuta, lau bloketan:

1. 'Euskara eta ni' blokean norberari eta norberaren etxeari buruzko baieztapenak baloratu behar izan dituzte.
2. 'Lagun arteko hizkuntza', dituzten ohituren berri edukitzeko.
3. 'Euskara Elorrion'. Esaldietan herri mailan euskaraz bizitzeko oztopoak, elorriarren ohiturak... egon dira, eta tartean ezagutzaren eta erabileraren inguruko pertzepzioari buruzko galdera ere izan dute. Portzentaje batzuen artean, eurentzat erreala zena aukeratu behar izan dute.
4. 'Euskararen egoera orokorra'. Hizkuntz komunitatearen egoerari eta euskararen normalizazio prozesuari buruzko esaldiak egon dira bloke honetan.

Adostasun maila markatu behar izan duten galdera horien ondoren, hiru galdera libre izan dituzte ikasleek. Asmoa eurek hausnartuta dituzten kontzeptu batzuk euren berbez adierazteko aukera ematea izan da. Inkestak martxoaren 5ean, 8an eta 19an bete zituzten ikasleek, bakoitzak bere ikastetxean, klase orduei hogeit bat minutu kenduta.

2.fasea: Ikerketa kualitatiboa

Gazteen diskurtsoa sakonago ezagutzeko proposa da eztabaida taldeen metodoa erabiltzea. Kasu honetan, zazpi pertsonako lagina aukeratu da eztabaida talderako. Herriko elkarteren bateko kide diren gazteak dira eztabaida taldeko partaideak. Gainera, elkarte horiek batez ere pertsona gazteez osatuta daude.

Eztabaidako partaideak ama hizkuntza eta ikastetxeari dagokionez hainbat profiletakoak dira. Euren lagunarteaz gain, herriko gazteen ezagutza zabalagoa ere badute gazte hauek, eta taldean irtendako ideiak aberatsak izan daitezkeela aurreuposatu da.

19 eta 26 urte arteko zazpi pertsonen parte hartu dute saioan. Taldekide batzuk herriko elkarte bat baino gehiagotako kideak dira. Hona hemen parte hartu dutenen perfila:

- A: 25 urte, emakumezkoa, futbol taldetik
- B: 26 urte, emakumezkoa, txoko feministatik
- D: 26 urte, emakumezkoa, Intxorta aisialdi elkartetik
- E: 20 urte, gizonezkoa, Intxorta, Gaztetxea eta Ernaitik
- F: 19 urte, gizonezkoa, Ernai eta Gaztetxetik
- G: 19 urte, gizonezkoa, Intxorta, Gaztetxea eta Ernaitik
- H: 23 urte, gizonezkoa, errugbi taldetik

Eztabaida taldea maiatzaren 22an batu zen, Iturri kultur etxean. Ordu bete inguruko saioa izan zen eta grabatu egin zen.

5. GAZTEEN ERANTZUNAK

5.1. Ikerketa kuantitatiboa. Inkesta

5.1.1. Datu estatistikoak


DBH4ko ikasleek euskaraz duten harremana hobeto ulertzeko galderetatik abiatuta, hizkuntza gaitasunari eta ohituren gaineko hainbat datu lortu daitezke. Hizkuntza testuingurua zelan hautematen duten eta euskaraz zelan sentitzen diren jakin gura izan da inkesta honen galderekin.

Galderetan landu diren arloak, norbanakotik hasi eta Euskal Herri mailako irakurketara zabaldu dira. Tartean, familia, lagunartea eta herriko egoera daude aztergai.



a) Hizkuntza gaitasuna

Egunerokotasunean hizkuntza baten bizitzeko, hiztunak eroso sentitu behar dira hizkuntza hori hitz egiterakoan. Elorrioko gazte gehienek, %78,2k, euskara badakite, baina zer kalitateko euskara?

Zelan baloratuko zenuke euskaraz berba egiteko zure gaitasuna?



DBH 4ko ikasleek, eurek euskaraz berba egiteko gaitasuna zelakoa duten galdetuta, zera diote: % 75ek oso ondo edo ondo berba egiten duela euskaraz. Ehunetik hiru baino ez dira euren burua nahiko makal ikusten dutenak. Laurdena baino pixka bat gutxiagok, ez dute ikusten ederto egiten dutenik, baina defenditzeko moduan bai.


Euskaraz irakurri edo irratia entzutean, dena ulertzen dut**Denetarako erabiltzeko moduan dakit euskaraz**

Orokorrean, ikasleek ez daukate arazorik euskarazko testuak eta euskarazko jarduna ulertzeko. 60tik 3 ikaslek erantzun dute ez dutela dena ulertzen, baina beste guztiek nahiko ondo edo ondo ulertzen dute euskara.

Erabiltzeko orduan, ez dute tamaina bereko gaitasuna sentitzen. Gehiengoak, %72k, esparru denetan erabiltzeko nahiko ondo edo oso ondo berba egiten dutela dio. Ikasleen laurdenak ez dauka hain argi bere hizkuntza gaitasuna. Gaitasunaz orokorrean galdetutakoan jaso diren erantzun antzerakoak jaso dira esparruei buruz galdetuta.


b) Norbere identitatea eta etxeko hizkuntza

Gazteen erdiak orokorrean euskaraz pentsatzen duela azaldu du, eta hori datu ona dela esan dezakegu. Norbere hizkuntzaren galderan, baina, "Orokorrean euskaraz pentsatzen dut" esaldiari %32k "Hala nola" erantzun die, eta erantzun lauso horrek ez du argitasun askorik ematen. Hori erantzun dutenek bi hizkuntzetara pentsatzen dute, baina zer oreka mailan? Izan daiteke gaztelaniaz nagusiki pentsatzea, eta era suabe baten hori aitortzea?

Orokorrean, euskaraz pentsatzen dut


2006ko mapa soziolinguistikoaren arabera, herriko etheen erdietan gaztelera erabiltzen da. Gazteei etxeko hizkuntzagatik galdetuta, nahiko erantzun parekatuak batu ditugu. Dena dela, gehientsuenetan gaztelania erabiltzen dutenak gehiago dira euskara etxeko hizkuntza dutenak baino. Graduazioak graduazio, ikasleen %36k dio euskara dela euren etxeko hizkuntza nagusia, eta %47k berriz, gaztelania.

Etxeko hizkuntzak norberak pentsatzeko erabiltzen duen hizkuntzan eragina izan dezake. Erantzunen arabera, alde apur bat dago etxeko hizkuntzatik norbere hizkuntzara: Ikasleen %47k etxean batez ere gaztelania erabiltzen badu ere, euskaraz pentsatzen ez dutela dioten ikasleak %18 dira.




c) Lagunartea

Lagunarteko hizkuntzari buruz galdetuta, erantzunek beste era batera margotzen dute grafikoa:




Kale erabileraren neurketa gogora arazten du grafiko honek. Ikasleen %45ak lagun arteko harremanetan hizkuntza nagusia gaztelania dela erantzun du. Euskara, berriz, %15entzat baino ez da lagunarteko hizkuntza nagusia. "Biak berdin" erantzun dutenen artean denetariko graduazioa egon daitekeela aurreuposatu beharko da.

Honako beste grafiko honetan ikastetxean eta lagunartean erabiltzen diren hizkuntzen konparaketa dago. Ia ikasleen erdiak (%45ek) esan dute euskara dela ikastetxeko hizkuntza nagusia. Lagunartean nagusiki gaztelaniaz berba egiten dutenen kopuru bera da.



Lagunarteko hizkuntza ohituretan zerikusi handia dauka taldean norbanakoak dituen rolak. Harreman horietan, gaitzagoa izaten da beti gaztelaniaz egiten duenari euskaraz egitea, gaztelaniarako joera handia duen pertsonak euskara jotzea baino. Euskaraz hitz egiteko gaitasuna izanda, pertsona batzuekin euskaraz egiteko ohiturarik ez dutela aitortu dute ikasle gehienek; % 82k.

Pertsonen arabera da. Batzuek ez daukat ohiturarik euskaraz egiteko, nahiz eta biok jakin





d) Etxea eta lagunartea

Etxeko ohiturek kalean eragina izan dezaketela ikusita, interesgarria da etxeko eta lagunarteko euskararen erabilera datuak grafiko baten alderatzea. Korrelazio bat dagoela dirudi. Nabarmenezkoa da etxeko hizkuntza nagusia euskara dutenen artean eta beste guztien artean alde handia dagoela. Etxean euskaraz ia beti egiten dutenen artean %32.4k egiten du euskaraz lagun artean. %63.6k bietara egiten duela erantzun du eta gaztelaniara gehienetan %4.5k jotzen du.


Etxean euskara eta gaztelania, biak berdin egiten dutela erantzun dutenen artean gaztelaniara jotzeko joera nabarmena da, eta etxeko hizkuntza nagusia gaztelania dutenek ere horrela egiten dute. Proportzioak horrelakoak dira: Erdiek erantzun dute gehienetan gaztelaraz egiten dutela lagunartean; %17.8k esan du ia beti egiten dutela gaztelaraz, eta hizkuntza biak berdin erabiltzen duela erantzun du %22.2k.

Hona hemen datuak, bi eratara adierazita:



e) Elorrio eta euskara

Herriko hizkuntza egoera zelan hautematen duten jakiteko, inkestan euskararen ezagutzaren eta erabileraren inguruko galdera ere erantzun dute. Portzentaje batzuetatik eurek hautematen duten erabilera eta ezagutza markatzeko eskatu zaie, bai Elorriori buruz orokorrean, eta baita gazteen inguruan ere. Gazteek erantzundakoetatik bataz bestekoa eginda hainbat ondorio atera ditzakegu.



Oro har, ezagutzaren eta erabileraren artean saltoa dagoela sumatzen dute gazteek, baina desberdintasun hori neurtuta dagoena baino txikiagoa da. Herriko ezagutzaren eta gazteen ezagutzaren artean, ikasle askok gazteen ezagutza maila altuagoan dagoela erantzun dute, baina batzbeste, 1.3 puntuko aldea baino ez dago.


Euskararen erabilerari dagokionez, ikasleen ustez, herritarrek orokorrean hitz egiten dutena baino gutxiago berba egiten dute gazteek, baina neurtutako datuetatik nahiko urrun daude erabilerari buruzko euren pertzepzioak. 2008ko kale neurketan erabilera %22koa zen, eta ikasle gehienek arabera 10etik 4 elkarrizketetan egiten dute euskaraz gazteek.

Erantzun errepikatuenak hauek izan dira:

- Euskararen ezagutza Elorrian: % 70 inguruan kokatu dute 60tik 32 ikaslek
- Euskararen erabilera Elorrian: % 40 inguruan kokatu dute 60tik 29 ikaslek
- Euskararen ezagutza gazteek: % 80 inguruan kokatu dute 60tik 17 ikaslek
- Euskararen erabilera gazteek: % 30 inguruan kokatu dute 60tik 22 ikaslek


Herrian euskaraz bizitzeko oztoporik ikusten duten sumatzeko, Elorrioko merkatariekin euskaraz berba egiteko aukeren inguruan galdetu zaie ikasleei. Erantzunei erreparatuta, eurentzako egoera nahiko egonkorra dela sumatu daiteke. Nabarmentzekoa da gazteen %63k ez duela uste merkatariekin euskaraz hitz egiteko zailtasunak daudenik.

Herriko merkatariekin euskaraz egitea gaitza da



Gorago aipatutako moduan, herriko ezagutza nahiko altua dela uste dute DBH 4ko ikasleek. Batzbestek, elorriarren %67.3 da euren ustez, euskaraz berba egiteko gai. Merkatariekin harremanak euskaraz egitea ere nahiko oztopo bako kontua da eurentzako. Zer gertatzen da, baina Elorrion, ezezagun batekin berba egin behar dutenean? Erdiak baino gehiagok %53k, zehazki gaztelaniara jo ohi duela aitortu du inkestetan.


Ezezagunekin erdaraz hasten naiz badaezpada




f) Euskararen egoera orokorra

Inkestako galdera libreetan ageri denez, ikasle askok euskara galtzeko arriskuan ikusten dute eta transmisioaren inguruko ardura azaldu dute. Inkestetan, galdera bi modutan planteatu da.

‘Euskararen transmisioa ez da segurua’ esaldiarekin adostasuna eduki dute 23 ikaslek, ia 10etik 4k (%38.33k). Bestalde, ikasleen herenak ez du arriskurik ikusten transmisioan.




Ikasleen %33.3k transmisioan arazorik aurreikusten ez badu ere, pixka bat baxuagoa da euskararen egoera egonkorra dela esaten duten ikasle kopurua: %21.6k iritzi hori dauka.



Nabarmentzekoa da, 'Hala hola' erantzuna aukeratu dutenen kopurua. Euskararen egoera orokorrari buruz iritzi zehatzik ez daukan ikasle kopurua handia dela esan genezake. Hizkuntza biziberritzeko prozesu honetan dena eginda ez dagoela baina egoera txarra ez dela sumatuko dute nonbait. Hori, baina, hipotesi bat baino ez da. Ikasleek euskararekiko dituzten bizipen eta ideiak hobeto ezagutzeko galdera ireki batzuk planteatu dira inkestan.


Hizkuntzaren normalizazio prozesua zelan hautematen duten jakiteko, arlo gehienetan euskaraz bizitzeko aukerak dauden galdetu zaie inkestan. Ikasleen erdiak baino gehiagok (%55ek) baikor ikusten du egoera, euskarak funtzio eta esparru gehienetan lekua daukala uste dute. % 20 baino ez da ezezkora gerturatu.

Euskaraz bizitzeko aukerak daukagu arlo gehienetan




Kultura arloan sorkuntza asko dago euskaraz

Euskarazko kulturgintzari buruz ere nahiko iritzi baikorra dute ikasleek. % 47rentzat sorkuntza nahiko handia da, eta % 10a baino ez da ezkor agertu. Dena dela, % 43k 'Hala hola' erantzuna aukeratzeak sakonago eta beste modu batera arlo honi buruz duten pertzepziara urrerratzeko beharra erakusten du.



Hizkuntza gutxituen gainean, orokorrean daukaten ezagutza zer edo zelan ezagutzeko, euskararen antzeko egoeran dauden hizkuntzak ezagutzen ote dituzten galdetu diegu DBH 4ko ikasleei. %33k badauka ezagutza, eta % 22k, berriz, ezetz erantzun du. Ikasle kopuru handi batek (%44k) 'Hala hola' erantzuna aukeratu du, eta pena da, erdi bideko erantzun horrek atzean benetan dagoena ezkutatzeko baitu.

Euskararen antzeko egoeran dauden hizkuntzak ezagutzen ditut



5.1.2. Galdera libreetan irtendako ideiak

Gazteen diskurtsora gehiago gerturatzeko, hiru galdera libre planteatu zaizkie inkestaren amaieran:

- Euskara zertarako?
- Zelako interesa daukazu euskararekiko?
- Zer landu beharko litzateke, zure ustez, euskararen egoera hobetzeko?

Hona hemen galdera horietan irten diren ideiak, agertu diren kantitatearen arabera.

KOLEKTIBOTASUNA / EUSKALDUNTASUNA	
Euskal Herriko ikur garrantzitsua, euskaldun egiten gaituena / Euskaldun sentitzeko / Euskara gabe ez zen Euskal Herririk egongo / desberdin egiten gaituena	25
Gure ama hizkuntza da	6
Herriak bizirik jarraitu ahal izateko	2
Bertako kultura mantentzeko	1
Hizkuntza gabe ezin gaitzke kalera irten	1
GALTZEKO ARRISKUA	
Ez dut desagertzea nahi / Ez badugu erabiltzen galdu egingo da / Zaindu egin behar dugu bestela galdu egin ahal da / Pena emango lidake galduko balitz	21
Nire ondorengoek euskaraz egitea gura dut	9
IDENTIDADEAN DUEN PISUA	
Nire hizkuntza da / Euskarak zu egiten zaitu	3
ERABILERARI BURUZ	
Ez dut/ dugu asko erabiltzen	7
Gazteon euskararen kantitatea eta kalitatea hobetu beharko litzateke	1
Pena handia ematen dit gero eta gazte gutxiagok praktikatzen dutelako	1
Kalean entzutea pozgarria da	1
FUNTZIO INSTRUMENTALA	
Komunikatzeko / Euskaldunon artean komunikatzeko	14
Gauza guztietarako balio du / egunero erabiltzeko / leku guztietan erabiltzeko	12
Lana bilatzeko behar da	3
Ez da baliagarria, denek dakite gazteleraz	2
EGA ateratzea nahi dut	2
Ikasketak euskaraz egin nahi ditut	1
EUSKARAREN EZAUGARRIAK	
Oso polita da, gustatzen zait / euskara hizkuntza ederra da	12
Hizkuntza zaharra da	5

BESTE KONTZEPTU BATZUK	
Hizkuntza bat gehiago jakiteko	7
Erdarak lehia handia egiten dio euskarari. Ezin da onartu	2
Hizkuntza zaila da	1
Oso erabilgarria kanpoan ulertua ez izateko	1

Sakonago:

1) **Euskarak galtzeko duen arriskuaren diskurtsoa** barneratuta dute eta askotan errepikatu da, batzuetan kontraesan eta guzti. Jakitun dira euren artean gehiago erabili ahalko luketela, baina ez dute euskara galtzea nahi. Ez dute maila pertsonalean zereginik dutela sentitzen, antza:

- *“Nik ez dut asko erabiltzen baina nire ustez euskara mantentzea oso garrantzitsua da Euskal Herriaren ikur garrantzitsuena dela eta”*

Beste batzuek pasio handiagoz erantzun dute:

- *“Euskara da nire hizkuntza; betidanik erabilitakoa eta beti erabiliko dudana. Euskaraz beste hainbat urtetan bizitzea espero dut, eta gure ondorengoak ere euskaraz bizi ahal izatea.”*

2) Nahiz eta aldeko iritziak agertu, eta euskara galtzea gura ez izan, batzuk **baliagarria ez dela** nabarmendu dute:

- *“Ez da oso baliagarria zeren eta gaur egun pertsona guztiak gaztelera dakite baina oso polita da hizkuntza eta ez nuen guztoko desagertzea”*
- *“pena bat litzateke gure hizkuntza galtzea, baina jakin behar dugu Euskal Herritik kanpo ez dela batere erabilgarria, baina interesgarria izango litzateke beste batzuek Euskara ikastea”*

3) Orokorrean euskararekiko **interes nahiko handia** daukatela diote ikasleek, **baina ez daudela ohituta erabiltzen**.

- *“Interes nahiko daukat baina momentu askotan nahiz eta konsiente izan erderaz hitz egiten dut ohituragatik”*
- *“Nahiko interesa dut, baina errazago egiten zait erderaz hitz egitea, gainera erderaz hitz egitera ohitu naiz eta ezin dut pentsakera hori aldatu”*
- *“Interes nahiko handia, baina kalean ez denez asko hitzeiten ez nau akostunbraute kalean jende guztiaz euskera erabiltzen”*
- *“Oso hizkuntza polita da eta denok erabili beharko genuke, nahiz eta nik asko ez erabili”*
- *“Euskaraz mintzatzen ahalegintzen naiz lagun artean, baina zoritxarrez erderaz egiteko ohitura hartu dugu, arrazoi horregatik bereziki interes gehiago dut euskaraz, gehiago hitz egiten saiatzeko”*

4) Erantzun batzuentzat euskararen **aldeko jarrera nahiko ageriak** ageri dira. Emozio eta motibazioa ageri duten erantzunak dira. Hiztun komunitateko kide aktibo moduan mintzatzen direla esan daiteke. Maila indibidualetik, eurek ere **euskararen alde zer edo zer egin dezaketela barneratuta daukate**.

- *“Niri hizkuntzak izugarri gustatzen zaizkit. Gainera nire etorkizuna hizkuntzekin erabat lotuta egongo da. Baina, dudarik gabe, euskara da gehien gustatzen zaidana, txikitatik hazi eta hezi nauena delako”*
- *“Interes handia daukat, askenfinean gu euskaldunak garela adierazteko modu bat da eta asko gustatuko litzaidake euskara mota guztiak ikastea”*
- *“Ikasketak euskaraz egitea gustatuko litzaidake. Nahiz eta gero beste leku batera bizitzera joan, hizkuntza hori gurea dela erakusteko”*

Beste kasu batzuetan inplikaziorik ageri ez duten erantzunak ere egon dira. Ohituretan gaztelaniara jotzen dutela aitortu arren, batzuk ez dute ikusten aldaketarako eta hizkuntzaren normalizaziorako norbera aktibo izan daitekeenik. Erantzun honetan adibidez:

- *“Euskara gustatzen zait baina gaztelaraz hitz egitea errazagoa egiten zait” esan, eta gero, egoera hobetzeko, “Ume txikiei erakutsi haiek hitzegingo dute geroago euskaraz”*

5) **Etorkizunerako proposamenak** ere jaso ditut inkestetan, ‘Zer landu beharko litzateke euskararen egoera hobetzeko?’ galderarekin.

Batzuek telebistaren papera nabarmendu dute:

- *“Telebistako programak euskaraz interesgarriagoak egitea, bai eta gehien zabaltzen den komunikabidea telebista da”*
- *“Niri gustatuko litzaidake “La que se avecina” eta horrelako serie antzekoak, euskaraz ere egotea”*
- *“Gaztelaniak euskarari lekua kendu dio. Adibidez; telebista, aldizkariak, irratia eta bestelakoak jartzean euskaraz dagoena oso gutxi da. Gehien gustatzen zaizkidan telebista programak erderaz dira. Etb1en ez dago guretzako bezalako entretenimendu programarik, eta beraz, beste kate batzuk ikustera behartuta zaude”*

Administrazio publikoaren inplikazioaz ere hitz egin dute:

- *“Estatuak laguntza eman beharko lioke Euskal Herriari euskara eta ikastolei laguntzeko. Baina estatuak oztopoak jartzen ditu”*
- *“Administrazioko eta zerbitzuetako jendeak hizkuntza hau erabiltzen jakin beharko zutela, horrela hauekin ere erabiltzeko. Gainera jende gazteari ohartarazi behar zaio euskara erabiltzen ez badute galdu egingo dela”*

- *“Euskadiko eskola guztietan euskera behartua ipintzeko, gazte batzuk ez dakite hitz bat ere ez”*

Euskararen aldeko ekimenak indartzea:

- *“Egoera hobetzeko Korrika, Ibilaldia edo horrelako ekintza gehiago antolatu ahalko ziren”*
- *“Euskaraz ekitaldi gehiago egin beharko litzateke, eta jendeak parte hartu”*
- *“Sektore publiko eta sozialean euskara gehiago erabili beharko zuketenean eta programa ludiko gehiago egin beharko ziren euskara bultzatzeko”*

Gazteen erabilera indartzearen premiari buruz ere jaso da erantzun bat:

- *“Nire ustez, euskararen egoera mantentzeko, gazteengan eragina egin behar da, hauek kalean ere erabiltzera motibatu eta horrela gaztediak euskara gehiago erabiltzea lortuz”*

Gutxi izan dira ezer ez dela egin behar esan dutenak, baina halakoak ere jaso dira:

- *“Ezer ere, euskara beste hizkuntza bat bezalakoa delako, batzuentzat politagoa izan ahal da, baina hori edo berez edo ikasiz ikasten da”*

Transmisioaren ideari buruz erantzun interesgarriak ageri dira. Adibide honetan pertsona beraren erantzun bi batu irakur ditzakegu:

- *Zelako interesa daukazu?*
“Nire izekorekin bakarrik egiten dut euskeraz nire etxean, orduan familia arloan intenez gutxi dauka baina nik interesa ipintzen diot nire gurasoei erakuzten”

- *Zer landu beharko litzateke zure ustez, euskararen egoera hobetzeko?*

“Nire arbaso gehienak gaztela la mantxakoak dira eta Elorriora etorri ziren hitxik ulertu gabe. Pixkanaka nire gurasoak gazteak zirenean euskera apur bat ikasi zuten eta orain ni D eremuan ikasten nabil. Euskararen egoera hobetzeko gutxika-gutxika irakatxi behar da hizkuntza hori mantentzeko gure seme-alabei erakusten eta haiek beraien umeei”.

5.2. Ikerketa kualitatiboa. Eztabaida taldea

Arinago aipatutako moduan, eztabaida taldera herriko kultur eta kirol elkarteetan dabiltzan gazteak gonbidatu dira. Pertsona hauek gertuko lagun taldean ibiltzeaz gainera, elkarteetan dabiltzanez herriko egoeraren ikuspegi zabala daukate eta iritzi-trukaketa aberatsa izan da eztabaida taldekoa. 19 eta 26 urte arteko zazpi pertsonen parte hartu dute saioan. Honako taldeetako kideak izan dira:

- Intxorta aisialdi elkarte
- Ernai gazte antolakundea
- Gaztetxea
- Futbol taldea
- Errugbi taldea
- Elorriko Txoko Feminista

Jarraian, eztabaida taldean irtendako ideiak batuko ditugu.

a) Egoeraren hautematea

Oro har Elorriko euskaraz jende askok dakiela sumatzen dute eztabaida taldeko kideek. Herrikan kanpoko jendeak ere pertzepzio hori daukala uste dute. Erabilera, ordea, makala dela badakite, eta eurretako batzuk ere sarritan erdaraz egiteko ohitura daukatela aitortzen dute.

Zuentzako Elorrio herri euskalduna da?

- *Bai*
- *Elorriko nik uste dot lotzen dala herri euskaldun moduan, baina gero errealitatean... Oso euskaldun moduen daukogu gure burua, edo kanpotik batez be euskalduntzat gaittue, baña gero ez da herrixen bertan dauen errealidade bat.*
- *Nik uste dot baña inguruakin konparauta egixa dala igual euskara gehixau eitxen dala. Nahiz eta egixa dan ez dogula eitxen esaten dan beste euskera...*
- *Ze inguru baña? Abadiño, Durango... Abadiñora zoiez eta dana eitxen dabe euskeraz*

(...)

- *Nik uste dot be bai, dauela kriston fallua orokorrien, hori, lehen esan doguna, dala herri oso euskalduna, baina gero hitz egiten da super gutxi euskeraz. Zoiez Herrikora, ta erdixak baino gehixau erderaz eitxen dabe! Niri iruditzen xata pixkat lotsagarrixa. Igual juten bazaz eztakit nora ba bueno, baina eske...*
- *Bai, holako taberna baten egonda, ez?*

- *Niri esanda dekoztie hori kanpotik etorritako batek, Lekeitixoko batek, "Ostras, Elorrixon ez dozue eitxen euskeraz? Nik pentsatzen neban dana euskalduna zala, eta zerraua". Zekon ideia bat eta beste zozer topau zeban.*

Ze pertzepzio daukazue? Zenbatek jakingo du euskaraz herrian?

- *Elorriko mailan gehixenek badakite, bakarrik ez dala hitz egiten.*
- *Gaztiekin nik uste dot ehuneko ehunak badakixela. Jakin euskaraz gaztiak?*
- *30 urtetik behera bai*
- *Ez, e? Intxortan badauz umiak ez dakitenak.*
- *Eta elorrixokuak die?*
- *Bai. Ulertzen dabe justu-justu.*
- *Ba iguel etxien eta inguruen ez dabe eitxen euskeraz eta orduen klasien igual bai, baña gero...*

Azkeneko datu soziolinguistikoen berri eman da eztabaida taldean. Tartean gazte batzuk bazeuzkaten datuak entzunda. Ernai sortzeko prozesuan euskararen gaia landu dutela azaldu dute, eta futbol taldeko kidea Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiko parte hartze prozesuan egon da.

Datuak gogora ditzagun: Elorrion, %59k daki euskaraz, eta %29koa da erabilera. Gazteetan, aldiz, %78 da euskaraz berba egiteko gai, eta %22k erabiltzen du kalean.

- *Hori igoten dabil, nik uste. Nik uste dot baietz, e? Ointxe zoiez kaletik, plazatik, ikusten dozuz umiak jolasten dabizenak, eta euskeraz eitxen dabe.*
- *Baina ze adinetako umiak?*
- *Ba hori, ba, txikixak.*
- *13tik gora ia...*
- *Zuk txikitxan ez zendun eitxen euskeraz ala?*
- *Ointxe be bai.*
- *Ointxe be bai?*
- *Oin gu gara lehelenguak eiten dogula erderaz dana.*

b) Elkarte bakoitzeko errealitatea

Eztabaida taldeetan batutako gazteen elkarteek bereizgarri bat daukate: Beste elkarte batzuetan adin talde asko dagoen artean, taldeotako kide guztiak gazteak dira.

Intxorta aisialdi elkarteko eta Gaztetxeko kasuak bereziki aipagarriak dira. Taldeotan urteak daramatzatenak eredu dira gaztetxoagoentzat. Horren inguruan hausnartzeko bidea eman du eztabaida taldeak. Inguruak eta lagun taldeak hizkuntza ohituretan duen eraginaz ohartzen dira.

Intxortan, zelan ikusten duzue egoera?

- *Intxortan, umiek eitxen dabe dana euskeraz*
- *Nagusixenek ez. Nagusixenekin atzetik ibili biza pixkat, baina gero eske gero be bai fallatzen dogu begiraleak. Oseake... Azkenien gabiz hor, baina gero gure artien askotan be bai eitxen dogu erderaz, orduen da pixkat... Baina txiki-txikiek 10-11 urtetik behera... eitxen dabe dana euskeraz. Adibidez, 7kuak batzuk ez dakite erderaz ixa, eitxen dabe oso txarto. Bestela, hortik gora...*
- *Gero adibidez kanpamentuetan rekurridu behar dozu ekintza desberdinak eitxera edo zerbait eitxera umiak kanpamentuetan euskaraz eitxeko. Entzuten dalako a sako erdera. (...) Zigorak jarri ez, baina bai inizatiba desberdinak ein hori aber aldatzeko.*
- *Azkenien txikitatik hartzen badabe ohituria erderaz eitxeko nagusitan be ohituria eukiko dabe.*
- *Arazo handixena nik uste dot dala kuadrilla. Kuadrillan eitxen badabe erderaz, da super gatxa aldatzia.*
- *Zuenien danok eitxen dozue euskeraz. Adibidez nire kuadrillan joeria erderaz eitxia da...*
- *Hori da bakoitzak aldatu ahal dauen gauza bat...*

Gaztetxeak herrira begirako komunikazio guztia euskaraz egiten du. Gazte asanbladako kideen artean, ordea, gaztelaniarako ohitura handia dagoela azaldu dute bertako kideek:

Gaztetxean, zelakoa da egoera?

- *Gaztetxeko egoera da tamalgarria.*
- *Erderaz be bai. Tendentzia da erdarara botatzia.*

Asanbladak zer hizkuntzatan egiten dozuez?

- *Asanbleak eitxen die, eta justo-justo euskeraz.*
 - *Euskaraz hasi bai, baina tomatia daudenien... Diskusiñua hasten danien ia erderara jotzen dogu. Direktamente .Por ke esto por ke el otro, por ke pun y ke pan.*
 - *Ez dakit defenditzen garen errezau edo zer pasetan dan, eta orduen... defenditzerako orduen erderaz eitxen dau jentia.*
- (...)
- *Hori pasetan dana da. Azkenien egunerokotasunien erderaz, eta ein bidanien batzar bat edo zozer dana ia apuntau bidana akta baten edo pixkat garrantzitsuaua, ia hor, aldatzen da kontzientzia eta euskarara pasetan da. Gure kasuen aunke ez izen oso-osorik*

Kirol taldeei dagokienez, entrenatzailearen papera nabarmendu dute, bai rugby taldeko kideak, eta baita futbolekoak ere. Bi gazteek adierazi dutenez, taldea

eroaten duenak dauzkan hizkuntza ohiturak berebiziko garrantzia dute taldekideen artean:

- *Rugbyan nahiko ondo, nik uste dot. Baña aurreko urtien, nik hori bai ikusiot. Oingo urtien igual gitxiau, ze aurreko urtien zauen Urdin, eta orduen dana eitxen zauen euskeraz ta aparte entrenadore izetia be bai zan jokalaria, orduen zelaian be bazauen eta azkenien dana euskeraz eta gure artien be euskeraz. Zauen ingles bat be bai, eta horrei lo minimo esan erderaz ta holan. Txarлак eta normalien euskeraz zien. Aurten ia juen da Urdin, eta apur bat diferente. Azkenien ekipuen bategaz beti eitxen dozu euskeraz, eta beste batzugaz beti erderaz. Baina danok jakin arren euskeraz be bai, zauzenien bigaz, ta bategaz daukozu ohitxuria euskaraz eitxeko eta bestiaz erderaz, azkenien zuk be daukozu joeria erderara jueteko.*

Eta futbol taldean, berdina gertatzen da?

- *Bai, entrenadoriak eragin handixa dauko. Futbola beti lotzen da erderakin. Askotan hitz teknikuak eta izeten die erderaz. Guk bai igarri dogu, Arrube eta Gontzal etorri zien momentuan aldatu ein dala apur bat. Halan da be erderarako joeria dau, baina nik ikusi dot aurten futbolean euskararen presentzia gehixau dala, batez be nesken taldien, entretzailiak berak euskaraz dakixelako, eta Gontzalen joeria normalien euskaraz eitxia da. Orduen, askoz presentzia gehiau dau. Lehen dana izeten zan erderaz. Harreman pertsonalak batzukin euskaraz, baina bestela entrenamientuak eta dana erderaz izeten zien. Hori apur bat aldatu dala ikusten dot. Hobetu leikela? Dexente.*

Txoko feministako kideak azaldu duenez, euren taldean batzarrak euskaraz egiteko ohitura hartu dute.

- *Euskaraz... Batzen garenien batzen gara billerak eta eitxeko eta normalien euskera erabiltzen dogu. Baina beno, igual ixeten dalako bilera bat ordu betekua... gero seguramente igual gauzenien kalien horretaz berbetan igual erderara goiez, eztakit. Kuadrila differentetako neskak gara, gaztiak danak, eta bai, euskaraz funtzionatzen dogu.*

Ernain dabiltzan gazteek euren taldean euskararekiko ahalegin berezia egiteko beharra aipatu dutela azaldu dute, eta hori bera seinale txartzat hartu du bertako kide batek:

- *Ernain gauz pertsona batzuk eta pertsona hoiei kostaten iakunez euskeraz eitxia, o lo que sea, Ernai, dan moduko talde bat izenda, jarri behar izetia arau bat dala euskeraz berba eitxia... Hori arau bat izen bierrien zozer naturala izen bierko zanien. Hori da bastante penosua nire ustez.*

c) Eredu izatearen kontzientzia

Hizkuntza ohituren gaia lagunartean inoiz irten den galdetuta, badirudi koadriletan gaia ez dela askotan irteten, baina elkarte barruetan bai. Gaztetxoagoek euskaraz egin dezaten ardura daukate Intxortan eta Gaztetxean. Arlo horretan, begiraleak eta gazte asanbladan beteranoak direnak ere ere direla diote.

Lagunen artean gaia lantzen dozue?

- *Lagunen artien ez, baina elkartien bai.*
- *Intxortan, bai, azkenien landu nahi dogun gauza bat dalako. Azkenien umiekin zelan landu, zelan lortu... Botatzen dogu eguna esaten "ein euskeraz, ein euskeraz!" ta hori be ezta soluziñua. Orduen bai emoteotzagu bueltak, baina da super gatxa lantzia, ezpadozu ipintzen zure partetik... Oso gatxa da, zer esan bitzazu, ez ein erderaz, ez ein erderaz...*
- *Euskeraz ein, ta iasta.*
- *Adibidez Gaztetxien hasiera baten etorri zanien lokal honetara, kultur etxekora, egon zan inizatiba bat itxeko como taldetxo bat euskaraz inguruko analisisa eitzeko. Analisisa edo ,talde bat hori jorratzeko. Baina iraun zauzen bi aste. Eta hortik aurrera gaztetxien adibidez horren inguruen ezta beste ezer ein*
- *Nik uste dot adibidez Gaztetxien, Intxortan moduen, guk daukoguzela txikixak eta gazela ere ere be bai, nik uste dot gaztetxien da egiza izen bikoza ere ere bat. Azkenien umiak sartzen die*
- *Bai, oin gaztiak dauzenak 16 urtekuak datoz eta joeria hartzen dabe.*
- *Ikusten dabe dauzela nausixak eta hitz egiten dabela dana erderaz, eta orduen zergatik hitz egin biot nik euskeraz? Ze dauzenak hemen, doiezenak bost urte hitz egiten dabe erderaz, ba nik be bai.*
- *Ere ere bat izen bierko zan. Kalia da ere ere bat, baina azkenien zu sartzen zaren taldiak die kriston ere ereak ze taldien danok hitz egiten badabe euskeraz zure joeria izengo da euskeraz eitxia.*
- *Desberdin ez sentitzeko...*

d) Ohiturak

Ohiturak aldatzea gaitza da, eta zelan edo hala, herriko gazteen artean gaztelaniaz hitz egiteko ohitura zabaldu egin da.

- *Nik uste dot be bai askotan dependitzen dauela jendiak. Dau jendia ia daukozula tendentzia erderaz eitzeko. Badakizu dakila euskeraz baina zelan beti eitxen dauen erderaz, ia urteten iatzu zuri erderaz. Eta konturatu barik... Nik hori bai notatzen dot, adibidez, gure adinean zauen B ere ere, orduan B ere erekuek eitxeben gehixena erderaz, eta jende horrekin hitz egiten dozunian urteten iatzu erderaz. Guk kuadrilan normalien euskeraz eitxen dogu. Hitzak sartzen oguz erderaz, baina normalien euskeraz eitxen dogu.*

(...)

Kosta egiten da erderazko giroan zoner euskaraz esatea, ohiturak aldatzea?

- *Aparte ohitua, igual bai konfiantzia be bai. Adibidez, Intxortan ni Maitanekin %80 seguramete eingot erderaz, modu baten esatiarren, eta gero adibidez dauz beste Intxortako begirale batzuk eztaukotela horrenbeste konfiantza o lo que sea, eta urtengo iatazen hitzak euskeraz izengo diez seguramete.*

Konfidantza daukizun jentiaekin eitxen dozu erderaz orduen?

- *Konfidantza, edo ez dakit zelan esan, ez dakit zelan deitu horri, ez dakit zelan esan. Holako zoner.*

(...)

Denak euskaldunak izanda gaztelaniaz berba egiten bazabiltzate, egoera deserosoa da?

- *Ni heltzen da momentu bat konturatu eitxen nazela. Hasieran igual ni be erderaz nau, eta esaten dot “bua, zergatik gauz erderaz?” momentu baten aldatzen dozu txipa. Ez dakit zelan azaldu, baina bai, konturatzen zara. Zauz gustora be bai erderaz, baina bai, konturatzen zara “Zegaitik egiten dot erdera?z”*
- *Neri pasau iata apur bat, baina euki neban epoka bat obsesiñoa zala... Konturatzia igual edo baten bat denpora guztixan erderaz eitxen bazebilen, esatia; aber, guazen euskaraz eiten. Ezin neban ulertu zegatik egiten dogun. Ta gero gainera beti gauz euskararen alde...*
- *Goiaz Korrikara ta ia gaz euskaldunak.*
- *Ia, ta konturatzen zarenien pentsatzen dozu, aber oin zer esangot. “Itxaron, eingogu euskeraz?”*
- *Ernaiko batzarretan Lore egoten zan kartel batekin “euskaraz” jartzebana...*

Ta zuek zer esaten zeuntzien?

- *Ya estas...!!!*
- *Neri pasau xata igual egotia bat erderaz azaltzen zoner, eta esan; “aber ein euskeraz”, ta ia ez dau azaltzen. Ia ez daki zelan azaldu gauzak. Eztakit dan falta xakolako bokabulario edo ia moztutzazulako, ero...*

e) Herriko hizkuntza aukerak

Elorrion euskaraz bizitzeko aukeren gainean, denda eta tabernetan oro har salerosketak euskaraz egiteko aukerak daudela uste dute eztabaida taldeko kideek.

Kalean, tabernetan, dendetan, oztopoak daude euskaraz bizitzeko?

- *Nik uste dot ezetz. Nahiz eta berak ez jakin euskeraz, beti jakiten dabe minimo bat ulertzeko moduen. Zeuk euskeraz einda eta eurek erantzuteko moduen hitz batzuk bai.*

- *Elorrixoko moduko herri baten badakigunez denda bateko saltzailiak badakin edo ez euskaraz, dan La Mantxakua edo dan bertakua, ba zoiez edo erderaz edo euskeraz.*
 - *Baina orokorrien euskeraz zoiez, ez? ta gañera berak badaki hemen dauela, eta ez La Mantxan!*
 - *Iguel ez daki euskeraz, eta ezin dotzazu ein euskeraz... Batzuk euskeraz ez dotzue ulertzen ezer.*
 - *Niri pasau iaten aurrekuen botatzen gasolina eta esan notzan hogeita bost, eta derrepente markauosten 35, botatzen 35, eta gero "aaa hogeitabost, te he entendido treinta cinco..." Y no tenía dinero para pagarle, claro... Pasau iaten hori adibidez.*
 - *Niri pasau iata deitzia Osakidetza eta esatia tipuak erderaz eitxeko. Elorrixon bertan, zentralitakuak, en plan hasi euskeraz eitxen, eta erderara pasetako. Nik uste dot zala batez be, berak euskeraz zoker bazekixen, baña klaro, entre telefonua eta ez zan seguru sentitzen... Nik uste dot ipini zala nerbioso eta erderara jo ebal.*
 - *Azkenien aseguratzeko eta gauzak ondo eitxeko be bai, ez? Gero iguel ulertzen dau txarto, eta txarto eitxen badau gauzia...*
- (...)

- *Nere medikuak eztaki euskeraz...*
- *Ez?? Ba nik euki dodazen danek jakin dabe euskeraz. Igual hori eskatzen badozu ipintzeotzue euskaldun batekin*
- *Igual bai.*
- *Caja Laboralera juen zarie? Ni juen nintzen eta esan notzan zoker, eta gero berak, "perdona, querías no se que no se que?" eta esan zoztan ondo. Baña, esan biotzazu erderaz bera ziur sentitzeko.*
- *Niri adibidez pasatzen iata kontrarixua. Medikua hasten iata zoker esaten erderaz, eta nik ez dotzat ulertzen. Nire erderia txarra da, modu baten esanda. Orduen, neri esaten dosta zoker erderaz eta ez dotzadaz ulertzen gauza asko.*

Zure erderia txarra da?

- *Erderia bai, oso txarra. Esan nire "Gazte"ko irakasliai bestela...*
- *Ba asko erabiltzen dozu erdera...*
- *Nere erderia txarra da, eta orduen nere medikua hasten iata esplikatzen esto y esto y esto, eta de cuatro estos que me ha dicho ulertzen dotzadaz bi.*

f) Hizkuntza gaitasunak eta kaleko hizkera

Eztabaida taldeko zazpi kideetatik seik D ereduan ikasi dute 16 urtera arte. Euskaraz eta gazteleraz, bietan ondo moldatzen direla diote gehienek, baina badirudi esparru formalerako eta informalerako aldatu egiten dela hizkuntza kasu batzuetan. Gaztetxean, azaldu dutenez, aktak idazteko euskara erabiltzen dute. Medikuekin

ere, batek nabarmendu duenez, nahiago du euskaraz egin. Kalean eta lagunartean, ordea, adierazkortasun gehiago aurkitzen dute gaztelanian euskararen baino.

- *Ez da bardina 'juen popatik hartzera', edo 'vete a tomar por culo'.*
- *Iraindu gurebozu nonor erderaz hobeto eitxen da, indar gehixau dauko.*
- *Nik uste dot dana dala euskeraz guk ein dogunien, askotan, etxien bada gurasoekin edo eskolan bada, holako hitzak ez dozuz hainbeste lantzen. Azkenien zuri gurasuek eztotzue esaten "vete a tomar por culo" ez "juen popatik hartzera". Orduen, nik uste dot holako hitzak, gero telebistan ikusten dozu edo kalien entzuten dozu eztakit zer, eta ez gauz ohitxuta erabiltzera. Barregarri iruditzen iaku. Baten batek esateotzu "juen popatik hartzera" eta barre eiten dotzazu... Nik uste dot horrek gauzak ahozko hizkuntza baten ez diela landu. Eskolan hizkuntza formala erabiltzen dogulako. Eta etxean gero eztozu ikasten... Orduen azkenien eztaukozu lekua hori ikasteko bez.*
- *Ikastaro bat ein bierko da bestela, "kontestu informaletarako euskera"*
(Denek egin dute barre)

g) Telebistaren eragina eta euskarazko kulturgintza

Gazte hizkerako baliabideak gaztelanietatik hartzen dira sarri Elorrion. Euskaraz halakoak falta dira. Eta nondik datoz gazte hizkerako erreferentziak? Arlo honetan telebistak paper garrantzitsua daukala uste dute gazteek.

- *Hor dau telebistaren eragina be bai. Azkenien eukinda 100 telebisiño kanal diezenak erderaz da bi euskeraz... Eta bi euskeraz eztozuzenak ikusten kasi-kasi eztauelako ezebez...*
- *Gaztientzako gauzak eztauz. Goenkale, dauela 100 urte hor..*
- *Ba ni nau oso engantxauta Goenkalera...*
- *Ezta ezer. Ezta programaziño bat gaur egun jentiar atentiñoa deitzen dotzana. Gero daukozu adibidez, "El conquistador" dala pixkat deigarrixa gaztiendako, ta da erderaz!*
- *Punteruenak erderaz diez.*
- *Euskeraz jakingo dabe parte hartzaile gehixenek... Eztakit zergaitxik eitxen daben erderaz!*
- *Hasi zanien ez zan izen Basetxea? Ha euskeraz zan!*
- *Igual dauko espektadore gutxiau jende gehixauk dakilako erderaz*
- *Irabazixak be gitxiau die, eta orduen...*
- *Elorrixon, ni Arriolan nau... eta antzerkietan notatzen da pillo bat euskeraz danien. Jueten da... normalien juten badie 100, jueten die 5, euskeraz bada. Ze gehienak juten dienak die jubilauek, jende nausixaua... 50etik gora... Orduen euskeraz dan momentuen jende askok ez daki, eta orduen jente gutxiau jueten da antzerkietara. Nik uste dot horregaitxik dauela antzerki gutxiau euskeraz. Ta pelikulak eta holan...*

Euskaraz egindako kultura gutxiago saltzen dela eta horregatik horren aldeko apustua ere pobreagoa dela ondorioztatu du eztabaida taldeak. Hurrengo galdera berez etorri da:

Zuek adibidez, euskarazko liburuak, musika, antzerkia... kontsumitzen duzue?

- *Danek: Musikia.*
- *Neri adibidez pelikulak iruditzen iataz nahiko txarrak. Askotan dauz super txarto itzulita.*
- *Nire ustez berdina da euskaraz eta erderaz. Doblauta bada, erderazko batzuk be txarto doblauta dauz.*
- *Nik euskaraz oin dala asko ez dotela ikusten pelikula bat.*
- *Inglesetik erderara ia galdu ahal dau txiste batek broma bat, ba ia erderatik euskerara...*

h) Gaztelaniaz berba egiteko moda, adinarekin joaten da?

Hizkuntza ohituretan zer puntutaraino dauka garrantzia adinak? Intxortako begiraleek diote 13 urtetik gorako gaztetxoak hartzen dutela gaztelaniaz berba egiteko joera. Aro berezia da nerabezaroa, eta adin horrek hizkuntza joeretan daukan eragina aipatu dute eztabaida taldean.

- *Be bai, baina nik uste dot dauela epoka bat apurtxo bat... Adolezsentzian azkenien hartzen dozu nagusien eredu, eta egia da askotan nagusiok, eta guk momentu honetan be bai... Guk askotan kalien eiten dogu erderaz, ez gara konsziente baina gu be eredu gara txikiendako. Orduen ikusten dabe nagusi izatea dala erderaz eiten dabena... ta orduen kopia bat da. Hori ikusten da pilo bat, adin batetik aurrera ia, nahiz eta euskeria landu pilo bat, euren joera da guztiz kontrakoa.*

(...)

- *Esaten dabe 15 etik eztakit zenbatera dana eitxen dala erderaz, eta gero jentia bueltatzen dala, ez mundu guztia, baina asko bai, bueltatzen dala euskarara. Hori izeten da 23-24 urtegaz...*
- *Nik eztot ikusten hain klaru*
- *Nik oin lanagatzik eta gai hau jorratzen nabilelako, ikusten nabil euskara askoz be gehixau erabiltzen dotela, baina lehen egon zan tenporada bat super luzia eiten nebala dana erderaz. Kuadrilan danok euskaldunak izenda.*
- *Niretzako ez dogu euki kuadrilan hori epoka erderaz eiteko. Eiten doguna oin, dala hitzak eta esaldi batzuk sartzia, nik uste dot bizitza guztian egin dogula hori. Ez Durangora juen giñenien ikasten, ez beranduau... Nik uste dot dala kuadrilla bakoitzak daukala bere ohitxuria, baina eztala adin kontua. Gure adineko jentia, guk daukoguz 26, eta eiten dabe erderaz. Kuadrila batzuk dana erderaz, beste batzuk euskeraz...*

(...)

- *Nik uste dot hor 30-40 urtegar jentia hasten dala barriro eiten euskeraz umiengaitxik. Euskeraz eitxeko bier dozu edo ume bat edo txakur bat. Gainera lotsagarrixena da, umiei, "jan hau, eztakit zer..." eta albokoari, "como te estaba diciendo"... Zabiz emoten irudi bat... Ez gara konsziente, seguru, eta igual ni naz lehelengua iten dauena. Nik aluzinatzen dot entzutian pertsona bat sekula euskeraz entzun ez dotena, ta dauko txakur bat eta eitxeotze txakurrai euskeraz.*

i) Etxearen eta ikastetxearen eragina

Koadrilako hizkuntza ohiturak norbanakoan duten eragina handia da. Etxeko hizkuntzak eta ikastetxeak, zer eragin daukate joera horietan? Kasu bakoitza bakarra dela esan daiteke. Eztabaida taldean honako bizipenak batu dira:

Etxeko hizkuntzak asko eragiten duela uste duzue?

- *Nik uste dot, depende. Nik etxien beti ein dot erderaz baina kuadrilan iteot beti euskeraz.*
- *Nik uste dot eiten dauela gehiau erderara euskarara baino. Elorrio herri euskalduna dala esan dot, jente gehienok nik uste dot euskeraz eiten dogula etxien, baina gero kalien erderaz. Eta etxien erderaz eiten dauenak kalien be erderaz eiten dau. Nik uste, e? Justo zure kasua gitxienetarikua izengo da... Jente asko egongo da be bai erderaz eiten dauena etxien eta kalien euskeraz, baina nik uste dot dala gehiau beste kasua hori baino.*

(...)

- *Niri nere anaixiakin adibidez etxata urtetzen, ez dot imajinatzen elkarrizketa bat erderaz. Gurasuekin ba, ez dakie hainbeste euskeraz eta ezin dogu jo hainbeste euskarara, baina anaixiakin ezin dot euki alkarrizketa bat erderaz.*
- *Nik aldrebes. Ahiztiakin dana eitxen dot erderaz, etxien dana erderaz eitxen dogulako. Ohitura da. Etxien, gurasuek dana ulertzeko dana erderaz eiten dozunez, ia instintibamente urtetzen iata berari erderaz eitxia. Batzutan igual konturatzen na eta esateot, 'aber, badakigula euskeraz!' baina konturatu barik lehelengo igual hasten naz erderaz. Tiakin berdina pasatzen iata. Badaki euskeraz, baina konturatu barik, familixan beti eiten dogunez erderaz, ba ia... Ohitura da.*

Eztabaida taldeko kide batek B ereduak ikasi zuen Elorrion. Bere hizkuntza ohituretan eragina izan zuela azaldu du, B ereduak, eta bere gelakide gehienek etxeko hizkuntza gaztelania izateak.

- *Bai, eta ni akordetan naz, gaztetan erdera hutsa eiten nabela. Eta etxien aitak eta amak jakin euskeraz, eta erderara. Beti euki dogu diskusiño hori. Oin da kontrakua; oin ez dot eiten erdera bapez. Baña nik uste dot kontzientzixia hartu nebala. Lagunen artean gainera batzuk etxien ezeben eitxen euskeraz, eta eiten gendunak be pasatzen ginen euren hizkuntzara,*

eztakit zergatik. Nik oin erreztasun gehiau daukot inkluso euskeraz. Baña izen zan hori, moda bat edo ez dakit zelan esan. Zinen mas guay erderaz iten baziñun. Euskara klaseko asignatura bat zan, eta orduen, zan mierda bat. Ta konszientzia hori hartu arte ba hori.

j) Euskaldun berriekin berbetan

Euskaraz oso ondo ez dakien jendearekin nahiko buruhauste edukitzen dutela aipatu dute eztabaida taldean. Batzuetan, deseroso egongo dela, eta gaztelaniara jotzea hobeto dela pentsatzen dute. Grazia egiten diela ere aipatu dute:

- *- Etortzen iatzu bat eta hasieratik hasten iatzu "Nik naiz Lander..." ta grazixia ez, baña...*
- *- Bai, barreguria etortze xatzu konturatu barik.*
- *- Ta gero analizatzen badozu, joe, esaten dozu, saiatzen dabil. Eta gero igual emon ahal dotzazu bueltia, baina pertsona horri moztu dotzazun momentuan, ia saiatzia be kostau eingo xako. Nik uste dot guk eitxen dotzagula kriston kaltia.*

k) Elorrio Euskal Herriko testuinguruan

Gazteei euskarazko hizkuntza baliabideak falta izatea, herriko kontua da, edo orokorrean euskal hiztun komunitatean dagoen gabezi bat? Eztabaida taldeko kideek herrien arabera kontua dela esan dute. Gaia ateratzerakoan euskarak egoera hobea daukan herri batzuen inguruko komentarioak irten dira, eta baita egoera zailagoa duten herrietako egoerak ere bai. Adierazgarria da atal hau, Euskal Herriko egoera globalaz duten pertzepzioaz berba egin dutelako.

Elorrion kaleko hizkera pixka bat pobrea dala esan dozue. Euskal Herri mailako arazo bat da edo beste herri batzutan hobeto dabiz?

- *Herrixen kontua da nik usteot.*
- *Insultuak eta holako gauzak?*
- *Juen Ondarrura!*
- *Edo Azpeitira, edo Arrasatera...*
- *Herri batzuen kontua da. Batzuk dauke gehixau eta beste batzuk gutxiau.*
- *Beitu Sakanan... Juen giñen kanpamentuen [Intxortakoak] eta gu giñen erdaldun bakarrak. Los más españoles nosotros allí...*

Lotsia pasatu zenuten?

- *Jodee lotsia...*
- *Nik usteot Durangaldia eta orokorrien Bizkaia bastante espagnolizauta dauela.*
- *Euskeraz gehixen eiten dana da Gipuzkua aldia...*

- *Eta Nafarroako iparraldien...*
- *Bizkaia aldien euskeraz eitxen dan gehixena, eztakit, hemengo partia izengo da, Gipuzkoa onduen dauena, ze margen izquierdara... Vas a Barakaldo, y vamos!*
- *Zoiez Arrigorriagara eta eztau inok eitxen, baina zoiez alboko herrirra, Zararamora, eta eitxen dotzu ehuneko ehunak.*
- *Herrixetan be mugimendu asko egon diez. Barakaldo oso erdalduntzat jotzen da, baina gero, Barakaldon uste dot dala? Azkenien egon diez mugimendu batzuk herrixa euskalduntzeko, eztala asko euskaldundu, baina lehen zan ehuneko zero, eta lortu da bastante. Nik uste dot generalien galtzen dabilela euskararen presentzia leku askotan, baina hasi dan ez bajatzen jentia hasi da konturatzen egoeriaz eta hasi diez gauzak eitxen eta orduen ba igartzen da hori be bai.*

(...)

- *Nik uste adinan kontua ez dala. Ze hemen Elorrixon gure adiñekuak, 20tik 30era, gehienak eiten dogu erderaz nik uste dot. Ni egon naz lau urte Eskoriatzan unibersidadien, Gipuzkoako jentia, Beasain, Azpeiti, Azkoiti, Lekeitio, eta eiten gendun euskeraz. Gehiena. Eta gero eiten genduna erderaz ginen Durangoko batekin, ezakit nungo batekin... Hemen ingurukuekin*

I) Herrian gaia joratzeko premiari buruz

Ohiturak ohitura, egunerokotasuneko jarduna euskalduntzeko beharra dagoela uste dute gazteek. Kontzientzietan eragiteko premiaz berba egin dute.

Herrian zozer egiteko premia ikusten dozue?

- *Nik uste dot baietz. Askotan esaten dala “ein bida zozer” baña ezta ezer eitxen. Dala gatxa be bai pentsatzia zer ein.*
- *Hori, bakoitzak. Nik uste dot, 15 urtetik 20ra zauzela influentziauta; pelikulak ikusten dozuzenak die erderaz, telebista gehiena da erderaz, serieak eta... daukozuz horrek erreferente moduen. Gero ia 25 urtegaz ia daukozu zure pentsamendua eta pertsonalidadia einda, eta nik uste dot hori dala bakoitzetik urtengo dan zozer. (...) Azkenien D erdua da Elorrixon dauena. Orduen nik esaten dot, zozer ingozu, bale. Zer? Udalekuek euskeraz die, dana da euskeraz. Euskararen eguna ingo dozu? Bale. Horren egunien bai. Korrika pasetan daniel be danok gabiz euskeraz. Baina azkenien hori da eguneroko gauza bat, ez da egun bakarrekua.*
- *Bihurtu bida egunerokotasunien beharrezkua izetia euskeraz hitz egitia. Behar moduan...*

(...)

- *Falta da danok galdetzia “zergatik egiten dot erderaz?” Azkenien dakit berdin euskeraz. Nik adibidez pentsatzeot bixetan moldatzen nazela ondo. Erderaz, azkenien daukot maila bat etxien dana erderaz eitxeotelako, eta euskeraz be, beti eitxen dot eta ondo. Orduen, zergatik jotzen dot batera edo bestera? Nik uste dot hori dala bakoitzak bere buruari in biotzon galderia.*

(...)

- *Nik uste dot datuak atara ein bier diezela be bai, eta jentia jakin ein bier dauela zein dan egoeria. Danok dakigu erderian presentzia handixa dala, baña iñok eztaki Elorrixon gaztien %22k bakarrik iten dauela euskeraz, ehuneko 80 izenda euskalduna, oso flojoa da. Jente bati eragingo dotza eta beste bati ez, baña nik uste dot hainbat ekintza ein bier diela askotan eztaukozulako kontzientzia hori. Nik datu horrek ikusi nebazenien, badakizu Elorrixon erdera asko eitxen dala, baña aurpegixa jausten iatzu. Ze zuk pentsetan dozu, nik beintzat pentsatu izen dot, kalien bai, erderaz eitxen dala, baña euskeraz eitxeko be joeria dauela. Eske ehuneko 22 batek esaten dau oso-oso gutxi dauela. Ekintzak ein geinkez azkenien gure ohitxurak barriro euskalduntzeko. Zelan? Hori da danok jakin gura doguna.*
- *Egongo bazan errezeta magiko bat...*
- *Nik uste dot be bai gaiaz zenbat eta berba gehiau ein, horrek be eragiten dabela.*

6. ONDORIOAK

6.1. Euskaraz hitz egiteko gazteen gaitasuna

Hamar gaztetatik zortzi zen euskalduna 2006an. Aurten dira berriro mapa soziolinguistikoko emaitzak kaleratzekoak, eta zifra horrek, azken hogeitaz urteetan egin duen antzera, gorantz jarraituko duela ematen du, herriko ikastetxeetako lanagatik, behinik behin. Orain arte gertatu dena ikusita, ordea, ezagutza handitzeak ez du esan gura erabileraren arazoa gaingaituko denik.

DBH 4ko ikasleek eman dituzten datuen arabera, 15-16 urteko gaztetxoek % 75ek dio ondo edo oso ondo egiten duela euskaraz berba. Arlo denetan euskaraz berba egiteko gai sentitzen da % 72. Irakurtzerakoan eta irratia entzuterakoan ulermen arazorik ez dago. Badirudi, baina hori ez dela berdin gertatzen funtzio guztietan.

6.2. Eskolarako eta aktak idazteko bai, eztabaidarako ordea...

Ikastetxeetako inkestetan ateratako ondorio bat oso deigarria da: Ikasleen % 45ek ikastetxean ia beti euskaraz berba egiten duela erantzun du. Portzentaje berdinak, % 45ek, lagunarteko hizkuntza nagusia gaztelania dela erantzun du, ordea. Ikasleen laurdenak, bestalde, ia beti edo gehienetan euskaraz berba egiten duela adierazi du.

Adinarekin doan moda bat den edo ez, horra hor eztabaida taldean sortu den gai bat. Egitate bat dena zera da; lagunartean berba egiteko gaztelania espresiboagoa dela 15 urtekoentzat eta baita hortik gorako gazteentzat ere bai. Belaunaldi arteko etenak eta erreferentzia faltak hizkera informal horretan Elorrioko euskara herren xamar egotea eragin dute. Ikastetxean eta etxean ikasitako euskara ez da nahikoa. Eztabaida taldean esan den bezala:

“Nik uste dot dana dala euskeraz guk ein dogunien, askotan, etxien bada gurasoekin edo eskolan bada, holako hitzak ez dozuz hainbeste lantzen. Azkenien zuri gurasuek eztotzue esaten “vete a tomar por culo” ez “juen popatik hartzera”. Orduen, nik uste dot holako hitzak, gero telebistan ikusten dozu edo kalien entzuten dozu eztakit zer, eta ez gauz ohitxuta erabiltzera. (...) Nik uste dot horrek gauzak ahozko hizkuntza baten ez diela landu. Eskolan hizkuntza formala erabiltzen dogulako. Eta etxean gero eztozu ikasten... Orduen azkenien eztaukozu lekua hori ikasteko bez.

Hor dago Gaztetzeko adibidea: Kalera begirako informazio guztia euskaraz egiten dute, eta hori eurek oso argi daukaten oinarri bat dela dirudi. Asanbladatan ere, euskaraz hasten dira, akta hartu behar delako, baina eztabaidaren bat sortzen bada, hizkuntza emozioak adierazteko eta zer edo zer indartsuagoa esateko erabili gura bada, gaztelaniara jotzen dute.

6.3. “Ohitura daukagu eta...”

Inkesten erantzunetan askotan agertu den hitza da ‘ohitura’. “Gazteek euskara gehiago hitz egin beharko lukete, baina nik ez daukat ohiturarik” lako esaldiak batek baino gehiagok erabili ditu. Eztabaida taldean ere esan da koadrilen araberakoa izaten dela sarri kontua:

- *Arazo handixena nik uste dot dala kuadrilla. Kuadrillan eitxen badabe erderaz, da super gatxa aldatzia.*
- *Zuenien danok eitxen dozue euskeraz. Adibidez nire kuadrillan joeria erderaz eitxia da...*
- **Hori da bakoitzak aldatu ahal dauen gauza bat...**

Baina zelan aldatu ohiturak? Egunerokotasunean lagunekin eta gertukoekin ditugun harremanetan ez da ohikoena “zer hizkuntzatan ari naiz?” pentsatzen egotea. Hausnarketa barik bizi gara euskaraz edo gaztelaniaz.

Gazteen ohiturak dira, baina antzerako irakurketa egin daiteke nagusiagoen hizkuntza jardunari buruz. Eztabaida taldean aipatu da, “umeei eta txakurrei euskaraz” egiteko joera. Belaunaldien artean egondako eten hori nabarmena da. Kontutan hartu, 2008ko kale erabilera neurketako datuak: Helduen % 24.7k egiten dute kalean euskaraz, eta adinekoen % 15.5ek. Herrian orokorrean ohiturak aldatuko badira, gazteak hasi beharko dira aldaketa hori gauzatzen.

6.4. Eredu eta erreferenteen beharra

Kirol taldeetan argi ikusten dute: Entrenatzaileen hizkuntza ohiturek talde guztiarengan daukate eragina. Lagunarteek, elkarteek edo kirol taldeek idatzi bako arauak dituzte, eta tartean daude hizkuntza ohiturak. Horregatik, talde berri batera sartzerakoan, bertakoa sentitu eta desberdin ez sentitzeko, bertako hizkuntza ohituretara moldatzen gara. Hori da Intxortan eta Gaztetzean gertatzen dena. Gaztetzkoentzako nagusiagoak dira eredu eta erreferente, eurek markatzen dute taldeko hizkuntza, eta nagusitzen dabilen gaztetzkoek eredu horien modukoak izan gura dute, eta taldean integratuta sentitu.

Eztabaida taldean, momentu baten oso argi berba egin dute gai honen inguruan:

- *Bai, oin gaztiak dauzenak [Gaztetxean] 16 urtekuak datoz eta joeria hartzen dabe.*
- *Ikusten dabe dauzela nausixak eta hitz egiten dabela dana erderaz, eta orduen zergatik hitz egin biot nik euskeraz? Ze dauzenak hemen, doiezenak bost urte hitz egiten dabe erderaz, ba nik be bai.*
- *Eredu bat izen bierko zan. **Kalia da eredu bat, baina azkenien zu sartzen zaren taldiak die kriston ereduak ze taldien danok hitz egiten badabe euskeraz zure joeria izengo da euskeraz eitxia.***
- *Desberdin ez sentitzeko...*

Intxortako begiraleek, euren aldetik, burukominak izaten dituzte gaztetxoei euskaraz berba egitea eragiteko. Neurri baten, baina, badakite begiraleen ohiturak eurak eragina daukatela gaztetxoen jardunean:

“baina gero eske gero be bai fallatzen dogu begiraleak. Oseake... Azkenien gabiz hor, baina gero gure artien askotan be bai eitxen dogu erderaz, orduen da pixkat...”

Herri barruko eredu eta erreferenteez gainera, hiztun komunitate osora bideratutako erreferenteak behar dituzte. Komunikabideek, eta batez ere telebistak daukan indarra azaldu da bai inkestetan eta baita eztabaida taldean ere.

Adibide bat: Abadiñon Sanblasetak azokan taloa eta txorizoa jaterakoan gazteei “dariyola” entzuten esatea gauza normala izan daiteke. Espresio hori Euskal Herriko txoko askotako gazteentzat izango da gertukoa, nahiz eta euren herriko berbaeran horrelako hitzik ez egon. Gaztelaniak mass medietan daukan garrantziak gazteen mundu imajinarioan itzeleko eragina dauka, eta telebistaren bidez, gaztelaniazko adierazpideak edaten dituzte. Euren berbetan ez dago euskaraz gazteei zuzendutako programa erakargaririk.

Hori diote DBH 4ko ikasleek:

- *“Niri gustatuko litzaidake “La que se avecina” eta horrelako serie antzekoak, euskaraz ere egotea”*

Eta baita eztabaida taldean parte hartu duten gazteek ere:

- *Ezta ezer. Ezta programaziño bat gaur egun jentiarri atentziñoa deitzen dotzana. Gero daukozu adibidez, “El conquistador” dala pixkat deigarrixa gaztiendako, ta da erderaz!*
- *Punteruenak erderaz diez.*

6.5. Herriko egoeraren hautematea

Elorrioren oro har euskaraz bizitzeko oztopo handirik ez dute ikusten gazteek. Inkesten arabera, DBH 4ko ikasleen % 63k uste du Elorrioko merkatariekin euskaraz berba egitea ez dela gaitza.

Orokorrean ezagutzaren eta erabileraren artean aldea dagoela badakite gazteek, baina ez dute errealitatean dagoen bezain tarte handia sumatzen. Ezagutza eta erabilera datuek, zenbakiak, kontzientzian eragina daukatela irten da eztabaida taldearen saioan:



“Nik uste dot datuak atara ein bier diezela be bai, eta jentia jakin ein bier dauela zein dan egoeria. Danok dakigu erderian presentzia handixa dala, baña iñok eztaki Elorrixon gaztien %22k bakarrik iten dauela euskeraz, ehuneko 80 izenda euskalduna, oso flojoa da. Jente bati eragingo dotza eta beste bati ez, baña nik uste dot hainbat ekintza ein bier diela askotan eztaukozulako kontzientzia hori. Nik datu horrek ikusi nebazenien, badakizu Elorrixon erdera asko eitxen dala, baña aurpegixa jausten iatzu”.

6.6. Euskararen arriskuak. Gazteen pertzepzioa

DBH 4ko inkestetan batez ere, argi ikusi da “euskara galdu daiteke” diskurtsoa barneratuta daukatela gaztetxoek. Desagertzeko arrisku hori sarri aipatu dute galdera libreetan, eta 10etik ia 4 ikaslek dio euskararen transmisioa ez dela segurua.

6.7. Kontzientzia hartzearen garrantziaz. Hizkuntza Ideologia

Euskararen erabilerak maila indibiduala eta kolektiboa dauzka. Talde bateko kide bakoitza talde horretan eragile izango da. Argi dago, tartean taldean pisu gehiago dutenak edo liderrak egongo direla, eta euren hizkuntza ohiturek besteenak baino indar gehiago izango duela lagun-taldean.

Gaztetxotatik, norberaren jokabideen kontzientzia lantzea garrantzitsua iruditzen zait arlo honetan. Euskararen egoera modu batekoa edo bestekoa izango da, baina hiztunak, eta kasu honetan gazteak, inplikaturik sentitu beharko lirateke

euren herriko hizkuntza erabileran. Norabide horretan, harrigarriak izan dira niretzako DBH 4ko inkestetako erantzun batzuk. Adibidez, hau:

- *“Euskara gustatzen zait baina gazteleraz hitz egitea errazagoa egiten zait” esan, eta gero, egoera hobetzeko, “Ume txikiei erakutsi haiek hitzegingo dute geroago euskaraz”*

Eztabaida taldean, aldiz, oso ondorio interesgarriak irten dira kontzientziazioaren inguruan:

- *Falta da danok galdetzia “zergatik egiten dot erderaz?” Azkenien dakit berdin euskeraz. Nik adibidez pentsatzeot bixetan moldatzen nazela ondo. Erderaz, azkenien daukot maila bat etxien dana erderaz eitxeotelako, eta euskeraz be, beti eitxen dot eta ondo. Orduen, zergatik jotzen dot batera edo bestera? Nik uste dot hori dala bakoitzak bere buruari in biotzon galderia.*

Hor dago arazoa hurrengo belaunaldien esku utzi eta prozesu naturala izango dela pentsatzearen arriskua. Horregatik, garrantzitsua da gaztetxotatik ikastetxeetan soziolinguistikako arlo batzuk lantzea, batez ere hizkuntza gutxitu baten normalizazioa zer den ondo ulertzeko. Berba gutxitan esanda, Hizkuntza Ideologia behar dute gaztetxoek, euskararen biziberritzean orain arte egindako lana ezagutu eta eurak ere prozesu horretan inplikaturik sentitzeko.

6.8. Gune baten premia

- *Nik uste dot be bai gaiaz zenbat eta berba gehiau ein, horrek be eragiten dabela.*

Eztabaida taldeko saioaren amaiera aldera kide batek esandakoa da hori.

Gune baten beharra dago. Hainbat gauzatarako: herrian euskarak daukan egoerari buruz berba egiteko, euskara gozamenarekin lotzeko, euskarak berreskuratu ez dituen arloetan bere presentzia eskatzeko, beste hizkuntza gutxituetan gertatzen denaren berri edukitzeko, bertsotan egiteko... Gauza askotarako izan daiteke, baina Elorrioko euskaldunen komunitateak euskarari buruz berba egiteko gune bat behar duela uste dut.

Herrian horretarako gune bakarrak ikastetxeak dira momentu honetan, eta ezin da euren esku bakarrik utzi herri osoari eragiten dion gaia. Kanean ere, 16 urtetik aurrera, horrelako gaiak eta hausnarketak egiteko aukerak eduki behar dituzte elorriarrek. Kontzientzia lantzeko eta belaunaldien arteko etenari buelta emateko ezinbestekoa da. Gune hori erreferentea izango litzateke. Momentu honetan ez dago euskaragaz zuzen lotutako talde edo leku erreferenterik.

7. BIBLIOGRAFIRA

- Elorriko datu soziolinguistikoak: <http://www.elorrio.net/eu-ES/Bizi/Euskara/Elorrioko%20euskera%20eta%20erabilera/Datuzoziolinguistikoak.pdf>

2008ko Kale Neurketa (Soziolinguistika Klusterra, 2008): http://www.elorrio.net/eu-ES/Bizi/Euskara/Elorrioko%20euskera%20eta%20erabilera/kale_neurketa.pdf

- Elorriko euskara adierazleak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza): http://www1.euskadi.net/euskara_adierazleak/udal_adierazleak.apl?hizk=e&udal=48032&envia.x=66&envia.y=9&check1=1&check7=5&check8=83&check10=90&check11=99&check12=100&numeroitems=13

- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (2013-2017): <http://www.elorrio.net/eu-ES/Bizi/Euskara/Documents/PLAN%20ESTRATEGIKOA%202013-2017.pdf>

- AMONARRIZ, Kike. Gazteen euskara erabilera: hizkuntza kalitatea. Hiznet, hizkuntza plangintza ikastaroa. EHU

- HERNANDEZ, Jone Miren. *Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur*. Plazaberri: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/plazaberri/2011/hernandez.pdf>

- GONZALEZ GIL, Nerea. Hizkuntzazko joaeraren aldaketa prozesua. Teoria eta praktika. Hiznet, hizkuntza plangintza ikastaroa. EHU

- JUARISTI LARRINAGA, Patxi. *Gizarte ikerketarako teknikak, Teoria eta adibideak*. EHUko argitalpen zerbitzua

- MARTINEZ DE LUNA, BERRI-OTXOA, koord (2000) *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*. NUP, EKE eta EHU

- SANCHEZ CARRION, Jose M^a, Txepetx (1991) *Un Futuro para nuestro pasado*. 'Adorez eta atseginez' mintegia. Donostia.

- ZALBIDE, Mikel eta ERIZE, Xabier. Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko. Hiznet, hizkuntza plangintza ikastaroa. EHU

8. ERANSKINAK

8.1. DBH 4ko ikasleek bete duten inkesta

Fitxa teknikoa:

- **Datu bilketa:** 2013ko martxoan egin da, ikastetxe bakoitzera joanda, klase orduei hogei minutu kenduta
- **Lagina:** 2012-2013 ikasturtean DBHko 4.mailan egon diren ikasleen unibertsoa. Guztira 60, Elorrioko Institutuan 39; Lourdesko Ama Ikastetxean 11; eta Txintxirri Ikastolan 10 ikasle
- **Ikerketa eremuak:** Euskararekin duten harremana maila indibidualean, lagunartean, herrian, eta orokorrean euskararen munduarekin

Inkesta:

ELORRIOKO GAZTEAK ETA EUSKARA

Galdetegi honetan euskaragaz lotutako galdera batzuk daukazue. Herriko gazteek euskaragaz daukazuen bizipenak ikusteko ikerketa bat egiten gabilta, eta Elorrion DBH 4 mailako ikasle guztiei pasa diegu galdetegi hau. Herriko argazki orokor bat egin gura dugu, beraz, galderak lasai erantzun, egia esateko inolako beldur barik. Zalantzarik badaukazu, galdetu!

Hasteko, fitxa betetzeko datu batzuk:

Zure adina:

Jaioterria

Zu:

Guraso1:

Guraso2:

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Nahiko ondo	Ez oso ondo	Txarto
Zuk					
Guraso1					
Guraso2					

Zer hizkuntza erabiltzen duzu?

	Euskara ia beti	Gehienetan euskara	Euskara / gaztelera antzera	Gehienetan gaztelera	Gaztelera ia beti
Etxean					
Lagunekin					
Ikastetxean/Lanean					

Adierazi esaldi hauekin daukazu adostasun/desadostasun maila kutxa bat markatuz

Euskara eta ni	1 Gutziz ados	2 Nahiko ados	3 Hala hola	4 Ez oso ados	5 Batere ados
2) Orokorrean euskaraz pentsatzen dudala esan dezaket					
3) Gustatzen zait erabiltzen dudana euskara					
4) Gaztelaniaz euskaraz baino hobeto adierazten dut nire burua					
5) Euskaraz irakurri edo irratia entzutean, dena ulertzen dut					
6) Denetarako erabiltzeko moduan dakit euskaraz					
7) Ahal dudana guztietan euskaraz hitz egiten dut					
8) Gaztelarrera jotzen dut errazago egiten dudalako					

Lagun arteko hizkuntza	1 Gutziz ados	2 Nahiko ados	3 Hala hola	4 Ez oso ados	5 Batere ados
9) Klean orokorrean euskaraz egiten dugu berba					
10) Gure arteko mezuak/emailak euskaraz dira					
11) Sare sozialetan (Tuenti, Facebook, Twitter...) euskara erabiltzen dugu					
12) Oso maiz euskara eta gaztelania tartekatzen ditugu					
13) Pertsonen arabera da: batzuek ez daukat ohiturarik euskaraz egiteko, nahiz eta biok jakin					
14) Espresio kolokial gehienak erderazkoak dira					

15) Euskaldunen artean erdara entzutean ez naiz eroso sentitzen					
---	--	--	--	--	--

Euskara Elorrion

Elorrion, gutxi gorabehera zenbaterik uste duzu dakiela euskaraz berba egiten?

% 10	% 20	% 30	% 40	% 50	% 60	% 70	% 80	% 90

Kalean zenbaterik erabiltzen dutela esango zenuke, gutxi gorabehera?

% 10	% 20	% 30	% 40	% 50	% 60	% 70	% 80	% 90

Eta gazteengan?

Euskaraz berba egiteko gaitasuna

% 10	% 20	% 30	% 40	% 50	% 60	% 70	% 80	% 90

Euskara egunerokotasunean erabiltzen duten gazteak

% 10	% 20	% 30	% 40	% 50	% 60	% 70	% 80	% 90

Adierazi esaldi hauekin daukazu adostasun/desadostasun maila kutxa bat markatuz

Euskara Elorrion	1 Gutiz ados	2 Nahiko ados	3 Hala hola	4 Ez oso ados	5 Batere ados
16) Dendari eta tabernariekin euskaraz berba egitea zaila da					
17) Ezezagun batekin berbetan hastean erdaraz hasten naiz badaezpada					
18) Gurasoek umeekin euskaraz egiten dute					
19) Baten bati euskaraz berba egiten hasi eta ez dakiela konturatzean, txarto sentitzen naiz					
20) Inguruko herrietan zelan berba egiten duten ikustea gustatzen zait					
21) Nagusien esamoldeak ez dira interesgarriak					
22) Hika berba egiten dakit					
23) Gure herriko euskarari buruzko hitzaldi bat interesgarria izango litzateke niretzat					

Euskararen egoera orokorra	1 Guztiz ados	2 Nahiko ados	3 Hala hola	4 Ez oso ados	5 Batere ados
24) Horrenbeste lanen ostean, euskararen egoera egonkorra da					
25) Ez da segurua gure ondorengoek euskaraz berba egitea					
26) Euskaraz bizitzeko aukerak dauzkagu arlo gehienetan					
27) Kultura arloan sorkuntza asko dago euskaraz					
28) Euskalkiak eta hizkerak ezagutzea gustatzen zait					
29) Euskararen antzeko egoeran dauden hizkuntzak ezagutzen ditut					

Galdera hauei bospasei lerrotan erantzun:

- Euskara, zertarako?
- Zelako interesa daukazu euskararekiko?
- Zer landu beharko litzateke zure ustez, euskararen egoera hobetzeko?

8.2. Eztabaida taldeko gidoia

Fitxa teknikoa:

- **Eztabaidako kideak:** 19 eta 26 urte arteko zazpi gazte. Herriko elkarte eta taldeetako kideak (Gaztetxea, Intxorta aisialdi elkarte, Txoko Feminista, Ernai, Futbol taldea eta Errugbi taldea)
- **Eztabaida eguna eta iraupena:** Maiatzaren 22a. Ordu bete pasatxo.

Gidoia:

1) EGOERAREN HAUTEMATEA:

- Ze pertzepzio daukazu? Elorrio herri euskalduna da?
- Zenbatek jakingo dute euskaraz?
- Herrian euskaraz bizitzeko oztopoak dituzuela uste duzue?
- Gazteok gure artean ze hizkuntzatan hitz egiten dugula esango zenukete?

(Hiru galdera hauen ostean labur-labur datu soziolinguistikoen azalpena egin. Datuak eman, eta euren pertzepzioa datuekin bat datorren ikusi)

- Zergatik ez da egiten, euskaraz berba egiteko gaitasuna edukita?

2) FUNTZIONALITASUNA:

- Zuen elkarteetan zer hizkuntzatan funtzionatzen duzue?
- Euskarak balio digu? Praktiko da? Edo zailtasunak dauzkagu? Gaztelera espresiboagoa da?
- Hutsuneren bat ikusten diozue dakizuen euskarari?
- Haserretzeko, adibidez, balio digu euskarak? Eta elkarri adarra jotzeko?
- Noiz ez duzue erabiltzen euskara euskaldunekin?
- Udaletxera joateko, dendan erosteko... lagunartetik kanpo euskaraz bai?

3) IDENTITATEA, EMOZIOAK, KOMUNITATE SENTIMENTUA...:

- Zuen izateko eran euskarak eragina daukala uste duzue?
- Gustatzen zaizue zuen euskara?
- Denak euskaldunak izanda erdaraz hitz egiten den lekuetan eroso sentitzen zarete?
- Etxean euskara jaso izanak edo ez jasotzeak eragina daukala sumatzen duzue?
- Lagunartean euskararen gaineko elkarriketarik edukitzen duzue? Eta zuen taldeetan?
- Adin taldeka desberdin ikusten duzue? Jarrera desberdinak daude zuek baino gazteagoak direnetan, edo zaharragoetan...
- Euskal kultura kontsumitzen duzue? Zelan ikusten duzue euskal kulturaren egoera?
- Elorrio mailan euskararen aldeko zer edo ozer egitea gustatuko litzaizueke? Premia dago?